

# GUaiXE.eus



Etxarri Aranatzeko **Euskal Festa** ospatuko da **bihar**



Sakanerria >> 6

Uharte Arakilen **Galiziako** gastronomiarekin gozatzeko aukera izanen da **asteburuan**. **Bigarrenez** pulpeiroa izanen da



Sakanerria >> 6

## Tokiko garapenari buruzko mintegia

Sakana barne garapen politikak aurrera eramateko orduan marko argi bat definitzeko erabilgarri izanen da

Garagartzaroko aurreneko hiru asteazkenetan Altsasuko Iortia kultur gunean izanen dira, 16:30ean hasita >> 5

**Arbizun 1936ko errepresaliatuei omenaldia**

Otsoportilloko gorpuak garagarrian aterako dituzte Aranzadikoek >> 3

**Urdiainen euskarari eusteko: eusliek** >> 5

**Gure Esku Dagok 2017an galdeketak eginen direla jakinarazi du** >> 8

**Ziordian herri lasterketa izanen da bihar** >> 11



Aizkolari handia omenduko dute etxarrin igandean. ARTXIBOA

## Nazabali merezitako omenaldia

>> 13



**Irurtzungo abesbatzak 10 urte bete ditu**

Bihar, 18:00etan, Biaizpe pilotalekuan kontzertua eskainiko du hainbat laguntzailerekin batera >> 15

# ZORION agurrak

Argazkiak emateko lekuak: • Altsasu: Foru Plaza 23-1 • zorion@guaixe.eus  
• Ordainketa, Guaixeren bulegoan edo ondoko kontu zenbakian egin daiteke:  
3035 0018 47 0181012564

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!

Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Bazkideek 3,50 euro!



- Leihoen, ateen eta kontraleihoen fabrikazio eta muntaketa
- Balkoien eta terrazen itxitura
- Kolore guztietako mallorkinak
- Konpromezurik gabeko aurrekontua

info@dekovennavarra.com • www.dekovennavarra.com

Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia • ALTSASU • Tel./Faxa: 948 468 360 • Telefono mugikorra: 690 641 860



## Maiatzak -Garagarrilak 27-2

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: gutunak@guaixe.eus

Ane ZORIONAK bitxito!! Egun zoragarria pasa zure 9. urtebetetzean eta prestatu zuk dakizun egiten bizkotxo goxo goxo hori. Muxu asko, Joseba eta gurasoak.



### Musika

**X. urteurreneko kontzertua.** Maiatzaren 28an, larunbatean, 18:00etan Irurtzungo Bialpe frontoian. **Irurtzungo abesbatza.**

**Dj Jo ta txo, Tximeleta eta lagunak eta Arkada Social.** Maiatzaren 28an, larunbatean, 22:00etan Etxarri Aranazko plazan.

**Ikasturte akaberako kontzertua.** Maiatzaren 29an, igandean, 19:00etan Etxarri Aranazko plazan. Musika eskolako ikasleak.

**Azken tren.** Maiatzaren 29an, igandean, 19:30ean Altsasuko Haritza tabernan.

**Ikasturte akaberako kontzertua.** Maiatzaren 31n, asteartean, 18:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean. **Altsasuko Musika eta Dantza eskolako ikasleak.**

### Dantza

**Dantzari txiki eguna.** Maiatzaren 28an, larunbatean, 11:30etik aurrera Etxarri Aranatzen.

**Galiziako dantzak.** Maiatzaren 28an, larunbatean, 20:00etan Uharte Arakilen. **Os Filos de Breogan dantza taldea, Lusquefisque pandereiteiak eta Xioniñas taldea.**

**Dancing now.** Maiatzaren 29an, domekan, 17:00etan Olatzagutiko kultur etxean. **Ludotekako dantza tailerrekoak.**

### Antzerkia

**Falstaff no cree en la otra vida.** Maiatzaren 27an, ostiralean, 22:30ean Olatzagutiko kultur etxean. **Tarima Beltza.**

### Dokumentalak

**Desahuciando al miedo.** Maiatzaren 29an, igandean, 12:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean.

### Bizikleta festa

**Maiatzaren 29an,** igandean, 9:30etik aurrera Irurtzungo plazan. Ibilaldia, jolasak eta beste.



Tximeletak bihar Etxarri Sakanako lagun musikariak gonbidatuko ditu.

### Ibilbideak

**Arania-Sarabe.** Maiatzaren 29an, domekan, 9:00etan Altsasuko Foru plazan. **Dantzaku Sakanako mendí sekzioko emakume taldea.**

**Botanika ibilaldia.** Maiatzaren 29an, igandean, 10:00etan Madozko mendatean. **Gidaria: Felix Rey.** Arakilgo Udala.

### Erakusketak

**Guk ibilitakoak gureak dira.** Maiatzaren 27an, ostiralean, 18:00etatik 21:00etara eta maiatzaren 28an, larunbatean, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 21:00etara Olatzagutiko kultur etxean. Maiatzaren 29an, igandean, 11:00etatik 14:00etara eta 16:30etik 18:30era Arbuzun Olatzean.

**Nafarroa 360.** Garagarrilaren 14ra arte, astegunetan 18:30etik 21:00etara eta domekan 19:00etatik 21:00etara

Altsasuko Iortia kultur gunean. **Javier San Felipe Larrea.**

### Hitzaldiak

**Altsasuko euskalkia.** Maiatzaren 27an, ostiralean, 19:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean. **Hizlaria: Koldo Zuazo.** Altsun Eskuz.

**Hipoteken zoru klausulak eta eskriturak.** Maiatzaren 28an eta 29an, larunbatean eta domekan, 12:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean. **Hipotekek Kaltetutakoen Plataforma.**

**Inauteriei buruzko liburu aurkezpena.** Maiatzaren 31n, asteartean, 19:30ean Altsasuko Haritza tabernan. **Idazlea: Edu Zabala**

**Tokiko garapenari buruzko mintegia.** Garagarrilaren 1ean, asteazkenean, 16:30ean Altsasuko Iortia kultur gunean. **Hizlaria: Francisco Alburquerque,** Ekonomia eta Enpresa Zientzietan doktorea.

**Opciones presentes y futuras de conexión a Internet en Sakana.** Garagarrilaren 2an, ostegunean, 10:00etan Arbuzuko industrialdeko Utzugane zentroan. **Hizlariak: Artaiz Asesoría Tecnológica eta Sisneteko kideak.**

### Bestelakoak

**II. Olagarro festa.** Maiatzaren 27an, ostiralean, 20:00etatik aurrera, maiatzaren 28an eta 29an, larunbatean eta igandean, 12:00etatik aurrera Uharte Arakilgo plazan.

**Kriseiluen gaua.** Maiatzaren 27an, ostiralean, 21:00etan Irurtzungo Foru plazan. Irurtzungo eta Arakilgo **Gure Esku Dago.**

**Auzolana Enneco parkean.** Maiatzaren 28an, larunbatean, 9:00etatik 13:00etara Etxarri Aranazko Danbolintxulo dermionan. **Nafarroa Bizirik fundazioa.**

**Euskal festa.** Maiatzaren 28an, larunbatean, 11:00etatik aurrera Etxarri Aranatzen.

**1936ko errepresalatuak omenaldi instituzionala.** Maiatzaren 28an, larunbatean, 12:00etan Arbuzuko udaletxean eta 13:00etan eliz atzeko oroitarrian.

**Fifa txapelketa.** Maiatzaren 28an, larunbatean, 18:00etan Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean.

**Floren Nazabali omenaldia.** Maiatzaren 29an, igandean, 12:00etan Etxarri Aranazko frontoian.

**Iñaki Otxoa de Olzaren oroimenez.** Maiatzaren 29an, igandean, 12:30ean Beriain magaleko oroitarrian.

**Patata txapelketa.** Maiatzaren 29an, domekan, 18:00etan Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean.

### Deialdiak

**Euskal Presoak Euskal Herrira!** Maiatzaren 27an, ostiralean, 20:00etan Irurtzun, Uharte Arakil, Lakuntza, Arbuz, Etxarri Aranatz, Bakaiku, Altsasu eta Olaztin elkarretaratzea.

**Euskal Presoak Euskal Herrira!** Maiatzaren 29an, domekan, 20:00etan Altsasuko plazan, elkarretaratzea.

**Bazkideek deskontua**

**Bakarra:**

**4,00€**

**Bazkideek:**

**3,50€**

**Ostiralero SAIOA**  
9:30ean

Errepikapenak: 14:00 - 19:00

Asteleheneetik ostegunera  
**Metropoli forala**  
9:00etatik 11:00etara



Esataria: Alfredo

Gaurko gaiak:

- Lukas Larrazari elkarrizketa
- Gure Esku Dagoren 2017rako asmoak
- Lakuntzako asteburuaren balorazioa

107.3 FM  
**beleixe**  
www.guaixe.eus-en ON LINE

## &gt;&gt; Etxarri Aranatz / Sakana



Hezurdurak garagarriean aterako dituzte eta Pako Etxeberria ariko da lanean.

## Otsoportilloko exhumazioak badu data

**Aranzadi zientzia elkarteak eginen du garagarriean, Nafarroako Gobernuak harekin hitzarmena itxi ondoren**

Etxarri Aranatzko alkate Eneka Maiz Ulaiarrek jakinarazi duenez, Nafarroako Gobernuak bere gain hartu du. Otsoportilloko lezetik 1936an hildakoen gorpuk ateratzea. Aranzadi zientzia elkartearekin foru administrazioak sinatutako akordioaren baitan, Otsoportilloko lezeke exhumazioa jaso da. Maizek azaldu digunez, gobernuo historia memoriarako atal buruarekin, Josemi Gastonekin zenbait bilera egin ditu gutiaz zehazteko. Ziurrenik hezurdurak hobitik garagarriean aterako dituzte eta Pako Etxeberria forentsea izanen da lanean.

Aranzadiko kideek honako lanak egin beharko dituzte lezean: haren planoak, hezurrak dauden metalezko kutxaren azterketa, zenbat hildako dauden jakiteko inbentarioa egitea, beharrezkoa balitz hezurdurak kontserbatzeko sistema aldatzea, lezeke zoruaz aztertzea beste hezurrik baden ikusteko, hondakinak jasotzea, omenaldiren batean erabilgarria izan daitezkeen bideo irudiak hartzea eta lezerako

sarbidea mugatzen duen sistema hobetzeko proposamena egitea.

### Omenaldia

1936ko estatu kolpearen ondorioz hildakoak gogoratzeko irailaren aurreneko igandean Otsoportilloko lezean hitzordua izaten da. 1980an hasi ziren omenaldia egiten, Etxarri Aranatzko Udalak eta hildakoen senideek deituta. Joan den urtean, estreinakoz, egun horretan bi omenaldi egin ziren, Otsoportillon eta Urbasako sarriko lezean. Ustez aurrenekoan eraikilak izan ziren etxarriarren gorpuk bigarrenaren agertu zirelako. Maizek nabarmendu duenez, "hau daudengorpuen inbentariorekido azterketa zientifikorik ez da sekula egin. Gainera, profanazio eta eraso ugari egon dira urte hauetan".

Azken horien identifikazio lanean buru-belarri aritu zen Amaia Urkijok azaldu zuenez, Otsoportillokoen identifikazioa "zailagoa" izanen da: "hezurrak lapurtu dituztelako eta lezean hezetan handia dagoelako. Garai batean jaitsi eta gorpuzkiak jaso ziren kutxa batean sartzeko. Urez beteta dago. Ez omen daude baldintza egokitan".

## &gt;&gt; Arbizu

## Udalak 1936ko errepresaliatuak omenduko ditu

1936ko estatuko kolpeak aurten 80 urte beteko ditu. Haren ondorioz sortu zen errepresioaren ondorioz errepresaliatuak izan ziren herritarrak gogoan izanen ditu Arbizuko Udalak. 12:00etan osoko bilkura berezia egingen du eta hura

despeditu ondoren, elizaren atzeko oroigarrian ekitaldia egingen da. Plaka bat mustuko dute. Errepresaliatuen omenezko aurrekua eta lore eskaintza izanen dira. Musiak, irakurraldiek eta auzatea osatuko dute omenaldia.



Arbizuarrak Sartagudako Memoria Parkean. @ARBIZUNKULTURAZ

## &gt;&gt;

## Hiru hildako Arbizun hegazkin arin bat erortzean

Pasa den osteguneko 18:07 ez dute nahi ahaztuko Arbizun: hegazkin arin bat Arbizuko Kale Nagusian erori zen. Lekukoek azaldu zuten, putre batekin talka egin ondoren erori egin zen. Altuera galtzean etxe baten teilatua ukitu zuen eta gero, etxartean erori zen hegazkin arina,



Suhiltzaileak lanean. UTZITAKOIA

aurretik pareta baten kontra eginenez, bertan aparkatuta zegoen traktore baten gainean bukatuz. Hegazkinean zihoazen hiru frantziarrak istantean hil ziren. Coim-

### Estatu kolpearen arrastoa

#### Erailak

Juan Jose Lakuntza Untzilla, Ricardo Olejua Irurtzun, Pedro Ihabar Lakuntza (1936-07-28, Oskiak txipudian hirurak) eta Migel Flores Estanga (1936-11-07, Etxauriko hilerrian)

#### Arazteak

Francisco Olaina, Dionisio Mendinueta, Fernando Ihabar, Julian Lafuente, Soledad Olejua Irurtzun, Andres Maiza Lakuntza eta Anunciacion Mendinueta Lazkoz.

#### Atxilotuak

Primitivo Flores Estanga (beste gazte batzuekin batera).

#### Preso

Inazio Goñi, Juan Goikoetxea, Jaime Olejua Irurtzun, Simon Arbizu Mendinueta eta Martin Flores Arbizu.

Bando nazionalen hilak (Batzuk boluntario, beste batzuk behar izan ziren). Valentin Flores (bando nazionalen borrokatza behartuta, Iparraldeko frontean hil zen); Julian Zabaltza (bando nazionalen borrokatza behartuta, Madrilen hil zen); Pedro Berastegi Mendinueta, (1936-09-25); Luis Berastegi Mendinueta, (1936-12-01); Jaime Flores Lakuntza, (1936-12-01); Felix Lakuntza Lazkoz, (1937-01-02); Gernan Goñi Aguado, (1937-05-10); Pedro Zaldua Lakuntza, (1937-10-22); Jose Arana Arregi, (1937-11-10); Pablo Flores Lakuntza, (1938-01-02); Jose Flores Arbizu, (1938-04-24); Antonio Ilereri Gartzandia, (1938-05-30); Rafael Razkin Lakuntza, (1938-07-03); Simon Arbizu Mendinueta, (1939-01-17). +www.guaixe.eus



Etxe batean hondatutako hesia.

bratik (Portugal) Daxera zihoan Frantziako matrikula zeraman Robin DR-40 hegazkin arina. Istripuak Arbizu goitik behera aztoratu zuen.



## GONBIDAPENA

Sarearen prezioa gonbidapen gabe: 3€ (12 urte arte dohain)

Produktu ekologikoen, bioeraikuntzaren, energia berriztagarrien eta kontsumo arduratsuen azoka

**Ekainaren 3tik 5era**

**EKO esperientzia bizi ezazu!**

[bioterra.ficoba.org](http://bioterra.ficoba.org)

- 3 pabiloi tematiko
- Osasun eta ongizate jasagarria
- Hitzaldiak, tailerrak eta denontzako aktibitateak
- Show Cooking
- Bioterraza, elikagai ekologikoekin
- Zozketak
- Haurrentzako aktibitateak!

gonbidapen hau mortu eta azkarrak sartzen ahalbidetzen du

**P** dohainik

**Ficoba, zator trenean!**  
(Irun-Ficoba geltokia)

**euskotren**

ANTOIZTARILEA

**FICOB A**  
IRUN-GIPUZKOA  
[www.ficoba.org](http://www.ficoba.org)



Oihane Andueza Imirizaldu

astekoa

## Hazi, hezi

Ez dugu zalantzarik jartzen landarearen artean badirela desberdintasunak. Larrosa bat halakoa eta halakoa da eta hainbateko ura behar du, argitasuna eta kontu pixka bat ederra egoteko. Haritza motelagoa da hazten eta urteak ematen ditu sendo eta altua bilakatzeko.

Azeri buztanak, aldiz, ibai eta erreka bazterretan jaiotzen dira edota ezponda ingurutan. Ur asko behar izaten dute eta hila bete batzuetan jaio eta hiltzen dira. Tomate landare baten helburua bere bizian tomateak ematea da eta bere bidea garbi du. Izan ere oso arraroa litzateke tomate landareak udareak eman nahi izatea.

Guztiok badituzte baldintza komun batzuk hazi ahal izateko. Euren bizitzaren hasieran lurra, lurra eta ura. Airera agertzearekin ez zaigu inori ere bururaten inongo landarerik kimatzea, izan ere badakigu denbora bat behar dutela lehenengo indartu eta gero kimatzeko. Landareen hobe beharrez kimatzen ditugu, jakinda hurrengo urtean indartuago aterako direla, bestela edertasunagatik, bestetan energia bideratzeko. Inoiz ere ez da landarearen osotasuna arriskuan jartzen kimatzerakoan.

Ausartuko nintzateke esatera orain arteko lerroetan dagoenarekin jende gehiena (ez bada dena) ados dagoela. Analogia bat

egingo dut landare eta gizakion hazkuntzaren artean.

Gizakiok, nahiz eta denok gizaki izan, izaera desberdinak ditugu. Batzuk mantsoak, besteak azkarrak, besteak babes asko behar dute, beste batzuk bigarren egunerako gurasoengandik urrun daude. Denek behar dugu babesa jaio eta lehenengo urteetan eta denok behar ditugu mugak bizitzan "zuzenago" joateko.

Hezkuntzako langile naizen heinean eta gizarte eta sistemen behatzaile naizen honetatik uste dut gaizki ari garela gabiltzan modu honetan. Zergatik saiatzen gara mundu guztiak dohain edota bertute berdinak

izaten? Zergatik kontxo ezartzen dizkiegu ume guztiei erritmo berdinarik? Zergatik saiatzen gara guztiengan interes eta eduki berdinarik ezartzen?

Zergatik kimatzen ditugu umeak gure ezeko beldurti eta mugatzaileekin? Euren "nor naizen ni" hori guztiz zapuztua gertzen da kimatze masibo eta zapaltzailearekin. Batez ere, goizegi mugatzen delako ene iritziz, ez mugatze hutsarekin.

Zergatik ez dugu umeen beren hazteko barne senean sinesten? Beraiek, tomate landare batek bezala, badakite zein den euren helburua bizitzan eta bide hori egiteko gaitasunak dakarte. Ken Robinsonek bere *El Elemento* liburu-

ruan hala defendatzen du eta nik ere hala dela sinistu nahi dut.

"Zergatik" guztia horieiez dakit erantzunik ematen.

Gustatuko litzaidake, aldiz, munduko begiek noizbait ere umeak landare eder eta delikatuak bezala ikustea. Norbera bere izaeran, kolore eta ezaugarrien arabera, errespetuz.

Gustatuko litzaidake gure beldur kimatzaile horiek alde batera utzi eta begirada maitekorraz behatu eta izaki zoragarri horiek ureztatzea. Ezer ere aldatu nahi izan gabe, izan ere badira perfektuak. Soilik begi-malkeoz ureztatu eta euren edertasunaz liluratzea.

Oihane Andueza

## hara zer diren

# Delituen biktimak

Nafarroan badugu delituen biktimentako laguntza zerbitzu bat, berriki tokiz aldatu dutena. Justizia Jauregian, San Roke kalean, kokatu dute orain, beheko solairuan. Diziiplina desberdineko talde batek dauka zerbitzuaren ardura: gizarte langileak, arlo juridiko eta administratiboko langileak eta psikologoak. Zerbitzu honek eskaintzen duena:

-Epaitegietatik bideratutako

mediaziorako kasuak artatu; prozesu judizial baten ondorioa dathau. Epaileek bideratzen dituzte kasuak eta egoera zehatz batzuetan ordaindu beharreko zerbitzua da.

-Ezintasun eskaerak jaso eta bideratu, beharrezkoa den informazio gehiago lortu.

Bestetik, jende aurreko arreta ematen dute ere. Gai honen inguruko zalantza eta informazioa ematen dute, behin haiekin kontaktua eginda: prozesuaren pau-

suak, kuradoretza, nola jokatu, tutorea izateak sortzen dituen betebeharrak, ezintasuna duenaren ondasunekin nola jokatu, zein kasutan den beharrezkoa prozesua hastea, aparteko neurriak -indarrezko sarrerak, adibidez- hartu ote daitezkeen edota gai honen inguruan suertatzen den edozein galdera.

-Biktimei laguntza, nahiz eta salaketa bat jarri izan. Beharren arabera arreta psikologikoa eta

laguntza emozionala eman, urgentziako laguntza, aholku juridikoak jasandako delituari lotuta, orientazioa salaketa jartzeari begira, dauden gizarte baliabideen orientazioa eta jaso ditzaketen diru-laguntzei buruzko informazioa eman, besteak beste.

Doakoa den zerbitzu publiko honen helburu nagusiak, batetik, biktimen eskubideen babesa eta defentsa eta, bestetik, biktimen babesgabetasun sentimendua

gutxitzea dira. Edozein delitu motatako biktimari laguntza ematen zaio, baina esan beharra dago gaur egun emakumeen kontrako delituak jasan duten biktimen kopurua nabarmenagoa dela.

Informazio gehiago: [www.cfnavarra.es/asistenciavictimas](http://www.cfnavarra.es/asistenciavictimas). Harremanetan jarri edo hitzordua hartzeko: 848 421 387, 848 423 376, 848 427 671 edo [ofidel@navarra.es](mailto:ofidel@navarra.es).

**Altsasu aldeko Gizarte Zerbitzuak**

## barrutik kanpora

# Bat eta bi

### BAT.

Badajozko kartzelan (750 km) den Gorka Fraile larriki gaixo dagoen presoetako bat da, eta 2015eko martxoan mingaineko minbizia diagnostikatu zioten. Maiatz hasieran bertako ospitalera eraman zuen poliziak tomografia axial bat egiteko; eskuburdinak jarrita

egin zuen bidaia osoa presoak, baina makinan sartu aurretik kendu egin zizkioten. Une horretan, tomografia egiteko mediku arduradunak Fraileri berriz eskuburdinak jartzeko exijitu zien poliziei. Azkenean, eskuburdinak jarri zizkioten. Etxerarek ezagutzen du kontsulta edo azterketa egoki bat egiteko eskuburdi-

nak kentzea eskatzen duten medikuen jarrera, baina lehen aldia da kontrako egoera gertatzen dela.

### BI

Bestalde, ostiral honetan Fresnesera martxak antolatu ditu Sortuk. Frantziako espetxe horretan egiten ari diren gose gre-

bak hamazapigarren eguna du gaur. Itziar Moreno bera eta Ekhiñe Eizagirre ere gose greba hasi zuten atzo, lehenengo isolamenduan, esan dugunez, eta Eizagirre zigor ziegan (Mitard) ekainaren 1 edo 2ra arte zigortua, joan den astean ere bertan sartu zezaten bultzatu zuelako. Iratxe Sorzabal, bestalde, gaur hasi da kartzelak ematen dituen otorduak errefusatzeko.

Horrez gain, Meaux presondegioko Oier Gomez eta Kepa Arkauzek 24 orduko txandakako baraualdia abiatu dute atzotik, bataz egun batean, besteak

hurrengoan. Gainontzekoan, Osnyko euskal preso politikoek protesta ezberdinak burutzen ari dira, Morenoren isolamendua salatzen: gutunak zuzendaritzari, enkarteladak, kontzentrazioak, txandakako baraualdiak ere, eta abar.

Kalean ere hainbat kontzentrazio eta ekimen ezberdinak egin dira, eta gutunak bidaltzen ari dira Fresnesera isolamendu hori salatzen. Parisko Elkartasun Komiteak, bestalde, kontzentrazioa burutu zuen joan den asteburuan Fresnesko ateetan.

**Etxerat**

**Guaixe**  

**ERREDAKZIO BURUA:** Alfredo Alvaro Igoa • [guaixe@guaixe.eus](mailto:guaixe@guaixe.eus)  
**ERREDAKZIOA:** Mainer Betelu Ganboa • [kirolak@guaixe.eus](mailto:kirolak@guaixe.eus)  
**MAKETATZAILA:** Garbiñe Navarro Rodríguez • [maketazioa@guaixe.eus](mailto:maketazioa@guaixe.eus)  
**PUBLIZITATEA:** Maria Saez de Albeniz • [publizitatea@guaixe.eus](mailto:publizitatea@guaixe.eus)  
 eta Eneida Carreño Mundiñano • [publi@guaixe.eus](mailto:publi@guaixe.eus)

**ERREDAKZIO LAGUNTZAILEAK:** Maialen Huarte Arano  
**ZUZENTZAILEA:** Garazi Garzia  
**ARGITARATZAILA:** Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1. 31800 Altsasu • 948 564 275 • 948 562 107 • 618 882 675  
**KOORDINATZAILA:** Goizeder Anton Iturralde • [fundazioa@guaixe.eus](mailto:fundazioa@guaixe.eus)  
**DISEINU ZERBITZUA:** GK • Ainhoe Etxeberria Pikabea • [gk@gkomunikazioa.eus](mailto:gk@gkomunikazioa.eus)  
**ADMINISTRAZIOA:** Gixane Andueza Goikoetxea • [zorion@guaixe.eus](mailto:zorion@guaixe.eus)

**LEGE GORDAILUA:** NA-633/1995  
**TIRADA:** 3.200

## LAGUNTZAILEAK:

**Mank**  
 s a k a n a

**BAZKIDEAK** 

**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**  
 HEZKUNTZA, HEZKUNTZA POLITIKA  
 ETA KULTURA SAILA  
 Hizkuntza Politikako Salburuzordetza

**ESZENARIO BERRIA:**

Altsasuko Udalak herenegun egin zuen bilkuran eszenario berria erostea erabaki zuen. Erosketara 30.250 euro bideratuko ditu.

# sakanerria >>

**SAKANA**

## Tokiko garapenari buruzko mintegia

**Garagartzaroko aurreneko hiru asteazkenetan Altsasuko lortia kultur gunean izanen dira, 16:30ean hasita**

Sakanako Mankomunitateak eta Sakanako Garapen Agentziak (SGA) tokiko garapenari buruzko mintegia antolatu dute. SGAn energia, industria eta zerbitzu arloez arduratzen den Aitor Eguzkitza Diegok esan digunez, mintegia "Sakana barne garapen politikak aurrera eramateko orduan marko argi bat definitzeko erabilgarri izanen da". Eguzkitzak zehaztu duenez, "gure helburua, garapen lokalerako estrategia koordinatu bat artikulatzeko lehen pausobezala, udaleetako, agentzia ezberdinetako, formakuntza zentroetako, sindikatu, enplegu zerbitzuko eta abarretako pertsonak arlo horretan trebatzea da". Helburua lortzeko "lanerako gidalerro argiak definituz eta beste zonaldeetako arrakasta kasuak erakutsiz bideratuko dugu".



lortian egindako topaketa bat.

**Egitaraua****>> Garagarrilak 1,****asteazkena**

Francisco Alburquerque (www.delalburquerque.es) Ekonomia eta Enpresa Zientzietan doktoarearen (Madrilgo Complutense Unibertsitatea) mustutze hitzaldia. Alburquerque Hego Amerikako tokiko ekonomia garapenaren ikerketa-ekintza arloan egindako ibilbideagatik saritua izan da. Gaur egun, Hego Amerika eta Karibeko tokiko ekonomia garapenean trebatzeko programako eskualde kontseilari-tekniko gisa ari da lanean.

**>> Garagarrilak 8,****asteazkena**

Orkestra, Lehiakortasunerako Euskal Institutua (www.orkestra.deusto.es/eu/). Iñigo Ruiz de Apodakak Deustuko Unibertsitateak Deustu Fundazioaren bidez sustatzen duen ekimenaren berri emanen du. Orkestrak hainbat ikerketa lerro erabiliz lehiakortasuna eta lurralde garapena ikertzen ditu. Hori hiru helbururekin egiten du: Euskadiren lehiakortasuna hobetzeko ekarpena egitea, herritarren ongizatea hobetzea eta lurralde lehiakortasunaren jakintza sortzea. Bere jardunak Orkestra elkarlan publiko-privatuaren arrakasta eredu bihurtu du. Hainbat sareekin, enpresarekin, gobernurekin eta erakunderekin makina bat proiektuetan lan egiten du. Euskadiren lehiakortasuna sustatzeko agente garrantzitsua izateaz aparte, testuinguru globalean eskualde lehiakortasunaren analisia nazioarteko erreferente bilakatu da.

**>> Garagarrilak 15,****asteazkena**

Azaro fundazioa (www.azarofundazioa.com). Ainhoa Arrizubieta Zabalak Lea Artibai eskualdean enpresa berriak sortu eta enpresa sarearen lehiakortasuna hobetzea helburu duen fundazioaren berri emanen du. Erakundeak honako zerbitzuak eskaintzen ditu: eskualdean ekonomia-jarduera berriak sortzea eta lehen urteetan haiek laguntzea; berrikuntza proiektuetan eskualdeko enpresei laguntza ematea (produktuan, zerbitzutan, prozesuetan, merkatuan, kudeaketa eta antolakuntza); lehiakortasuna hobetzeko proiektuak (planifikazio estrategikoak, marketing planak, finantza eta ekonomia ikerketak, bideragarritasun planak...) eta behatokia, negozio eta berrikuntza aukera berriak identifikatzeko.

**>> Altsasu**

## Euskaratik euskalkira

Jauzi hori egin nahi dute Altsun Eskuaz taldean biltzen diren altsasuarrak. Jauzi horretan herri guztiaren elkarlana ezinbestekoa ikusten dute. Aldi berean, jauziak euskaldunek Altsasun euren tokia berreskuratzen lagunduko duela sinistuta daude. Aurretik bide luzea duela badakite eta langintza "haria orratzean hariztatzea bezain zaila" izanen dela ere. Horregatik hartu dute azken irudi hori ikurtzat.

**HITZALDIA**

Gaur, 19:00etan, lortia kultur guneako areto nagusian Koldo Zuazok hitzaldia eskainiko du. Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle eta euskalkietan aditua da. Zuazo Urdiainen egonaldi luzea egin zuen bertako euskara ikertzeko 2007an eta 2008an. Sakanako euskara. Burundako hizkera liburuaren izen horren emaitza.

Altsun Eskuaz altsasuarrak hitzaldira gonbidatu ditu. Euskaratik euskalkirako jauzian "ezinbesteko" jo dute gaurko hitzaldia. Horrekin batera, Altsasuko euskalkiaren inguruko materiala bildu nahi dute; idatzia zein ahozkoa. Esparru guztietan euskalkiaren ikuspen handitzeko neurriak hartu nahi dituzte. Esaterako, Alde Zaharreko festetan festa giroarekin zerikusia zuten hitzez osatutako hiztegitxoak zuten kartelak jarri zituzten. Bestalde, antzeko prozesuak izan dituzten Euskal Herriko beste tokiekin harremanetan jarri nahi dute sare bat osatzeko, baita "bizipenak eta estrategiak" elkarbanatzeko.

**>> Urdiain**

Eusliek izanen diren gurasoen bilera. UTZITAKOIA

## Eusliek, haurren hizkuntza ohituretan eragiteko

**Aurreneko kanpaina martxan da. Euslea euskarari eusten diona da; Urdiaingo euskalkian euslia eta pluralean eusliek**

Herriko haurren ahotan gaztelaniarako gero eta joera handiagoa dagoelako, azken boladan nahiko kezkatuta zebiltzan Urdiainen. Horren jakitun, eta gaia aztertzeke, udala Sakanako Mankomunitatearen Euskara Zerbitzuarekin harremanetan jarri zen. Aldeek hainbat proposamen aztertu zituen eta, azkenik, Urdiaingo Udalak Iñaki Eizmendiren aholkularitza zerbitzua kontratatzea erabaki zuen, horretarako, aurtengo aurrekontuan dagokion diru-saila bideratuz.

Eizmendik Ebete egitasmoa aurkeztuz udalari. Aurreneko bilera baten ondoren Urdiaingo gurasoen aurreneko euskara batzordea deitu zuten. Apirilaren 13ko deialdiak erantzun oso ona izan zuen eta eskola eta ikastolako gurasoak elkartu zituen. Zegoen kezka eta konponbide posibleen inguruan aritu ziren. Batzordeak bigarren bilera berriki egin du eta plangintza egin du.

**Egitasmoak**

Eusliek kanpainak gurasoen jarreran eragin nahi du, haiek seme-alabendako eredu bihurtuz. Haurren hizkuntza ohituretan eragi-

teko, beraz, gurasoen jarrera eta jokabidea abiapuntua izan behar da. Gurasoek haien artean dituzten hizkuntza ohituretan eragiteak ere badakar egitasmoak. Eta ez soilik egitasmoa martxan den bitartean, ondoren ere. Bestalde, seme-alaben euskararen erabilerarekin arduratuta ez dauden gurasoei beste hainbatek kezka dutela transmitituko diete.

Helburu horiek lortzeko gurasoek hainbat konpromiso hartu dituzte. Esaterako, elkarrekin biltzen direnetan (eskola sarrera-irteerak, plazan, frontoian...) euren arteko hizkuntza erabilerari erreparatuko diote, eredu izateko euskaraz aritu beharko dute. Ahalegin kontziente bat egin beharko dute. Asmoa da hiru aste horrela ematea eta guraso guztiak egitasmoan parte hartzera gonbidatuak izanen dira, hau da, harremana euskaraz mantentzera. Gainera, aste-oro eusliek egonen dira, bospasei, pin bidez identifikatuko direnak. Guraso horiek aste horretan ahalegin berezia egin beharko dute gaztelaniara ez pasatzeko, baita beste norbaitek hala egiten badie ere.

Eusliek kanpaina garagarria akaberan despedituko da, ospakizun batekin. Baina gurasoen euskara batzordeak beste ekimenak egingen ditu etorkizunean.

**Arbizu**  
Hesteki eta pateak

www.embutidosarbizu.com  
Utzubar Industrialdea, E kalea 1-2 • ARBIZU tel. 948 46 06 28 fax. 948 46 10 16

Ogiaren artisaunak  
**PORTUKO** okindegia

ETXARRIARANATZ: 948 460 988  
ALTSASU: Denda: 948 563 822 • Lantegia: 948 467 153

**SAKANA**

# Herri sarreretatik: bide eman euskarari!

Bide eman euskarari, euskaraz bizi nahi dugu manifestazioa eginen da Iruñean garagarriaren 4an, 17:30ean, Golemetik abiatuta. Euskararen Gizarte Eragileen Kontseiluak deitu du manifestazioa eta euskarari bide emateko "neurri ausartak hartzeko" eskatuko da. Hainbat eragilek dagoeneko bat egin dute deialdiarekin. Nafarrak ere ari dira



AEKren Itsasi euskaltegiko ikasleak euskarari bidea emateko eskatuz.

herriz herri Iruñerako deialdia eginen eta euskaraz bizitzeko nahia adierazten. Hala, herrietako sarreretatik seinaleen ondoan argazkia

atera eta Iruñerako deialdia eginez Kontseiluak 111 argazki jaso ditu. Haietatik, soilik bi dira Sakanakoak: dorrobarrena eta olaztiarra.

**>> Etxarri Aranatz**

## Bide eta Ahuntzetxeko aterpearen ordenantzak egiteko parte hartze prozesua



Etxarriko Mendien Batzordearen bilera. ARTXIBOA

**Hurrengo hiru asteazkenetan bi ordenantzak osatzeko bilerak deitu dira. Parte hartzeko udaletxeko bulegoan izena eman behar da, asteartea baino lehen**

Etxarri Aranatzko Udalak dermiko bideen eta Ahuntzetxeko aterpearen ordenantzak onartu nahi ditu. Horretarako, Mendien Batzordeak zirriborro bat onartu du, baina etxarriarren proposamen eta ekarpenekin ondu nahi du. Horretarako, parte hartze

prozesua martxan jarri du, hurrengo hiru asteazkenetan udaletxean izanen dena. Prozesu horretan parte hartzeko, eta behar bezala antolatzeko, asteartera arte dago udaletxean izena emateko epea.

Joan den urtean Etxarri Aranatzko Udalak parte hartze prozesu bidez Baso Plan Integral berri baten oinarriak jarri zituen. Eneka Maiz Ulaiar alkateak orduko

**Egutegia**

- >> Garagarriak 1, asteazkena**  
18:00etatik 20:00etara Aurkezpena, informazio eta argibide fasea eta interesdunen azterketa.
- >> Garagarriak 8, asteazkena**  
18:00etatik 21:00etara Ordenantzen tailerra. Arazoak, konponbideak, ekintzak.
- >> Garagarriak 15, asteazkena**  
18:00etatik 20:00etara Parte hartzearen emaitzak eta bukaera.

prozesu hura "berritzaile eta eredu garria" izan zela azaldu du: "bataz beste 27 herritarrak parte hartu zuten bertan. Honen ondorioz, eta besteak beste, Bide eta Ahuntzetxeko aterpearen Ordenantzak landu eta onartzera, eta Baso Komisia martxan jartzera erabaki zen". Udaletik parte hartzerako gonbidapena egin dute. Informazio gehiagorako 948 464 004 telefonora hots egin daiteke.

**>> Lakuntza**

## Cava eta azoka uztartuta

Cava festa eta azokaren berreskurapena. Asteburu bete izan zuten Lakuntzan. Aitor Gartzia kultura zinegotziak balorazio "ona" egin du. "Dena berria izanda, positiboa izan da". Aurten ikasitakoarekin etorkizunerako hobetzeko aldaketa batzuk egin daitezkeela esan du zinegotziak. "San Sadurn de Noya"ko lagunekin gauza asko lotu ditu-

gu. Hemendik aurrera egitekoak ere". Jendeak emandako erantzunak aurrera segitzeko indarra ematen duela azaldu du zinegotziak. Cava ekoizleek uste baino gehiago saldu dutela ere aipatu du. Pena bakarrazuen, igandean eguraldiak lagundu ez izana. Kultur Batzordean, hala ere, balorazio sakonagoa eginen du.

**>> Bakaiku / Iturmendi**

FRANCIS IRIGOIEN OSTIZA

## Euria Santa Marinan

Ermitea ondoko aterpea estalpe ezin hobea bihurtu behar izan zen igandean. Hantxe babestu ziren jan eta edan nahi izan zuten guztiak. Bakaikuar talde bat mendi gainean gelditu zen eta beherakoan Dantzalarraren dantza egin zuen. Parrandak Bakaikun segitu zuen.

**>> Bakaiku**

## Bakaikun Euskaraz, izen ematea zabalik

Haurrendako udako euskarazko aisialdi programa eskainiko du Bakaikuko Udalak aurten ere. Aste-gun goizetan izanen da, garagarriaren akaberatik herri festak bitartean. 3 eta 12 urte bitarteko haurrei dago zuzenduta eskaintza. Euren artean euskaraz erlazionatuz ongi pasatzeko aukera izanen dute. Izen ematea udaletxeko bulegoan edo zinegotzietan esanez egin daiteke; epea garagarriaren 8ra arte zabalik dago. Programak aurrera egiteko gutxienez bederatz haurrek eman beharko dute izena. Epea despeditzean gutxieneko parte-hartzaile kopurua bete behar dago, Bakaikuko Udalak begiraleak hartzeko eta matrikulatzeko deialdiak eginen ditu.

**>> Uharteko Arakil**

## Galiziako gastronomia festa

**Gaur, 20:00etatik aurrera, maiatzaren 28an eta 29an, larunbatean eta igandean, 12:00etatik aurrera Uharteko Arakilgo plazan**

Estreinako esperientzia positiboren ondoren, atzera ere, Galiziako gastronomiaz gozatzeko aukera izanen da Uharteko Arakilen. Lugoko Pulpeiro Barallak bere plantxetan eta parriletan olagarroa, lakona, Padrongo piperrak, ganba handiak eta txikiak, zanburinak, txorizoa eta beste prestatuko ditu. Plazan jarritako mahaietan haiek dastatzeko aukera izanen da. Jatekoak bulkatzeko Albariño eta Ribeiro ardoak edateko aukera izanen da. Galiziako gastronomiaz aparte hango herri-musika eta dantzak ere izanen dira. Os Filos de Breogan dantza taldea, Lusquefusque panderteirak eta Xioniñas haur taldea ariko dira dantzan. Gainera, larunbat goizean, musika eta Uharteko Arakilgo eraldioak izanen dira kalean barna.

**>> Irurtzun**

MAIALEN HUARTE ARANO

## Trinitate festak

Eguraldia lagun, larunbatean iragarriak zeuden kirol proba guztiak eduki garatu ziren. Herri bazkariak eta kalejiriak giroa alaitu zuen. Atzera ere, parranda-zaleak Ergako erromerira igotzen zirenekin elkartu ziren. Azken horiek ez zuten eguraldiaren aparteko laguntzarik izan.

**SAKANA**

## Corpus eguna Aralarko santutegian

Corpus Christi eguna igandean ospatuko da. Aralarko santutegiak bilerak izanen ditu. 11:00etan meza isila izanen da. Meza nagusia, berriz, 12:30ean. Hura despeditu ondoren, fededunek Trinitateko baselizaraino prozesioan joanen dira, Aralarko aingerua buruan dutela. Despeditzean aingeruaren irudia gurtzeko aukera izanen da.

**>> Altsasu**

## Hipoteken inguruko argibideak

**Larunbatean eta domekan, 12:00etan, Iortia kultur guneko gela txikian**

Hipotekek Kaltetutakoen Plataformak, Altsasuko Udalaren laguntzaz, bi hitzaldi emanen ditu bihar eta etzi. Haietan hipoteken zoru-klausulak eta eskriturak izanen dituzte hizpide. Horretaz aparte, domekan, plataformak egindako Deshauciando al miedo dokumentala ikusteko aukera izanen da.

**>> Arakil**

## Aralarko botanika ezagutzeko ibilaldia

Arakilgo Udaleko Kultura Sailak Aralar mendiko basaloreak ezagutzeko ibilaldia antolatu du. Igandean, 10:00etan Madozko mendatean jarri dute hitzordua. Handik abiatuta, Felix Rey gidari dela, Aralarko landaretza ezagutzeko aukera aparta izanen da ibilaldia.

**>> Etxarri Aranatz**

## Euskal Festa da

Etxarri Gazte Asanbladak larunbaterako Euskal Festa antolatu du.

**Egitaraua**

- 11:00etan** Herri mugimenduben azoka.
- 12:00etan** Dantzari txiki eguna.
- 13:00etan** Herri kirolak.
- 15:00etan** Bazkaye.
- 17:00etan** Triki bertso poteue: Eneko Lazkoz, Oihana Iguaran eta Ander Fuentes.
- 22:00etan** Kontzertuak: Dj Jo ta txo, Tximeleta+lagunak eta Arkada Social.

**SAKANA**

## Otxoa de Olzaren oroimenez

**Igandean, 12:30ean, Beriain magaleko oroitarrian**

Anapurna jaisten ari zela hil zen Iñaki Otxoa de Olza mendizalea. Astelehenean zortzi urte bete ziren. Sakanako haren lagunak eta mendizaleak Beriain magalean, Leziza aldera, oroigarria jarri zuten. Eta aurrera, atzera ere, han elkartuko dira Iñaki Otxoa de Olza gogoan dutenek eta lore eskaintza eginen dute.

## SAKANA

## Etxeko lanak egiteko langileen zerrenda osatzeko deialdia

Etxarri Aranatz aldeko Oinarriko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak jakinari du etxez etxeko lanetan aritzeko langileen zerrenda sortu behar duela. Mankomunitateak dituen beharren arabera zerrenda horretako pertsonen behin-behineko kontratazioak egingen lizkiete. Interesa dutenek hilaren 30eko 14:00ak arte dute izena emateko aukera. Instantzia, nortasun agiria eta merituen txostena aurkeztu beharko dira. Euskara ziurtagiririk ez duenak maiatzaren 31n, 8:00etan, euskara proba egin beharko du Etxarriko liburutegian. Azterketa teorikoa eta praktikoa garagarriaren 10ean, ostiralean, 10:00etan izanen da, liburutegian. Deialdiari buruzko informazioa [www.etxarriaranazko-ogz.org](http://www.etxarriaranazko-ogz.org) web orrian, mankomunitatearen bulegoan eta Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren Altsasuko bulegoan jaso daiteke.



# Hondakin planaren parte hartze prozesuaren bigarren bilera

**Astelehenean, 18:30ean, Irurtzungo kultur etxera Araxesko, Mendialdeko eta Sakanako herritarrek gonbidatuak gaude**

Nafarroako Gobernuak herrialdeko Hondakinak Kudeatzeko 2016-2025 Plan Integratuaren zirriborroa egin du. Helburuak, azpiegiturak, kudeaketa erredua, gobernantza erredua, frakzio organikoaren tratamendua, industriako hondakinak eta beste zehazten dira. Zirriborroa egin ondoren, nafar guztiei irekia dagoen parte hartze prozesua martxan jarri zuten martxoan. Prozesu horrek bost arlo ditu eta bata herritarrena da, eta eskualdeka bilerak deitu dira. Horregatik, apirilaren 20an aurreneko bilera bat egin zen Irurtzunen.

Hartan parte hartu zuten sakanadarrek plana ezagutu eta eztabai-

datzeko aukera izan zuten. Besteak, beste, aho batez, hondakinen edozein errausketa motaren kontra azaldu ziren. Nafarroan hondakinen errauskailuetarako erregaiak egitearen aurka ere azaldu ziren.

### Bigarren erronda

Parte hartze prozesuaren bigarren erronda hasi da eta sakandarreri astelehenerako deia egin zaitza. Planaren erredakzio taldeko kideek lehen bilera errondan gai bakoitzaren inguruan jasotako ekarpen, proposamen eta ondorio nabarmenenak jakinaraziko ditu. Bestalde, gai sektorialen eta mankomunitateen bilerak Ingurumen Departamentuaren egoitzan izanen dira, garagarzaroaren 22an eta 23an, 12:00etan.

Parte hartze prozesua despedi-



Sakandarrak berriro hondakin planaz iritzia ematera gonbidatuak izan gara.

tu ondoren Nafarroako Hondakinak Kudeatzeko 2016-2025 Plan Integratuaren lehen bertsioa idatziko da, garagarriaren 30erako.

Egun horretan jendaurrean jarriko da, irailaren 30era arte. Behin betiko bertsioa lastailean argitaratu nahi da.

## » Iturmendi

## Ikasi eta gabezia bati konponbidea eman

**Sakana Lanbide Heziketa institutuko ikasleek Arrano Beltza eskolarendako bizikletak aparkatzeko aintzatuak egin dute**

Ibilgailu ez kutsakorrek erabiliz ikasleak eskolara joatea. Hori da Iturmendiko Arrano Beltza eskola komunitatearen asmoa. Eta bizikleta da halako ibilgailu bat. Baina ikasleak eskolara bizikletaz joaten baziren haiek non aparkatu ez zuten. Maiatzaren 19ra arte. Pasa den ostegunetik horretarako aukera dute, Sakana Lanbide Heziketako (LH) soldadura eta galdaragintza gradu ertaineko ikasleek eta irakasleek iturmendi txikien marrazkietan oinarritutako bizikletak aparkatzeko gailua jarri baitute. Bi ikastetxeetako ikasleak elkartu ziren mustutzean.

### Ibilbide baten ondorioa

Sakana LH ikastetxeak eskualdearen beharretara egokitzeko, ikasleek duten profesionaltasunaren mailaren berri jaso dute. Ikastetxean garbi dute "gaur egun trebetasun eta ezagutza teknikoek aparte, ekimena izatea, talde lana eta adierazteko gaitasuna kontuan hartzen diren gaitasunak" direla. Horregatik, ikastetxeko irakasle batzuk 2012-2013 ikasturtean Egi-



Eskolako ikasleak Lanbide Heziketa institutuan, lanak gainbegiratzeko. UTZITAKOIA

tasmoka Lana eta Hezkuntza Egoitzan trebatu ziren.

2014-2015 ikasturtean soldadura eta galdaragintza gradu ertaineko ikasleekin egitasmoka lan egiten hasi ziren. Emaizak "ikusgarriak" izan direla esan digute ikastetxetik: ikasle eta irakasleen inplikazio eta motibazio handia, haien arteko harremanaren hobetzea, idatzizko eta ahozko adierazpena hobetu ziren, talde lanean aritzen ikasi zuten eta ezagutza praktikoen maila handia lortu zen.

Ikasturte honetan Sakana LH Hezkuntza Berrikuntza Proiektuen deialdiak aurkeztu eta aukeratua izan da. Hala, "ikasleen, irakasleen eta gizarte inguruaren ikasketa, trebakuntza eta pertso-

na garapena sustatzearekin batera, Iturmendiko eskola publikoaren arazoa konpontzen saiatu dira". Gradu ertaineko curriculumeko edukiekin batera ikasleendako onuragarriak diren aspektuak jaso dituzte: arazo erreal bat konpontzea; zerbitzua eskainiz inguruarekin erlazioak sustatzen ditu, gizarte konpromisoa prestakuntzarekin lotuz; ikasle, irakasle eta inguruan motibazioa sortzen du; kudeatzearen inguruko kontzientzia hartzea; kolektibo ezberdinen arteko erlazioa eta kooperazioa sortzen du; inguruaren behar errealekin lan egiten erakusten du... Sakana LHtik jakinarazi dute bide horretan sakontzeko asmoa duela.

## SAKANA

## Europako hondakin bilketako praktika onak ezagutzen



Hernani, Iruñerria eta Sakanako ordezkariak izan ziren Italian. ZERO ZABOR

**Mank-eko presidentea Italian egin zen Zero Zabor Herrien bilkuran egon zen**

Zero zabor sortzeko bidean hondakinen kudeaketa egokia egiten duten herrien topaketa hartu zuen Capannorik (Italia) ostiralean eta larunbatean. Venetoko Contarina eskualdea da gaur egun kontinentean zero zabor sortzera gehien hurbildu den eskualdea eta, horregatik, han egin zen topaketa. Zero Waste Europe elkarteak antolatu zuen, Europako Batasunaren dirulaguntzarekin. Zero Zabor Ingurumen Babeserako Elkarteak gonbidatuta Sakanako Mankomunitateko lehendakari Aitor Karasatorre Muguruza topaketan izan zen, Irlanda, Italia, Eslovenia, Frantzia eta Euskal Herriko ordezkariekin batera. Karasatorrek informazioa jaso eta Europako praktika onak dituzten udalen esperientziak jaso zituen.

Topaketak Europako Zero Zabor udalerrietako ordezkariak urteotan eman dituzten aurrerapausoak trukatzeko eta etorkizuneko estrategiak jorratzeko baliagarriak izan ziren. Gainera, han martxan dauden proiektuak ezagutzeko aukera izan zuten: atez ateko bilketa sistema; altzari eta beste-

lako objektuen berrerabilpen zentroa; hondakin soberakinei irtenbidea emateko azterketak egin eta proposamenak egiten dituen zentroa edo errefusako hondakin birziklagarriez hausnartu eta erabakiak hartzen duen zentroa.

### Sarea

Elkarteak jakinarazi duenez, Zero Zabor Herrien Sarea Euskal Herria udazkenean lantzen hasteko asmoa du.

**BILTOKI**  
TABERNA • JATETXEA

Pintxoak  
Bokatak  
Plater konbinatuak  
Karta

Astelehenean ostiralera  
Eguneko menua  
9€

Asteburuetan  
Menu berezia 25€

948 467 876 • Altsasu

## » Altsasu

## Tarima Beltza Klinikarekin

Tarima Beltzak diru-laguntza eman dio Josefina Arregi Klinikako Lagunak elkarteari. Castroko eta Abadiño taldeekin elkar trukea egin zuen eta haiek martxoan bisitan izan ziren. Bi emanaldietako sarreraren %10 aipatu elkarteari eman dio.



## SAKANA

# Etxarri Aranatz, Bakaiku, Sakana: erabakitze eskubideari bidea ematen

**Gure Esku Dagok jakinarazi du heldu den urtean ibarreko hainbat herritan galdeketa eginen direla**

Kataluniako ereduari segituz, Euskal Herrian estreinakoz, 2014ko apirilaren 13an Etxarri Aranatz independentziari buruzko herri galdeketa egin zen. Aurtengo azaroaren 27an lekukoa hartuko du Bakaikuk. Bada, herri galdeketa heldu den urtean segida izanen dute Sakanan. Hala jakinarazi zuen Gure Esku Dagok larunbatean Lakuntzan egindako ekitaldian.

Gure Esku Dagoren izenean Anabel Arraizak adierazi zuenez, "herritarren garaia da eta erabakiaren aroan guztiz murgildurik gaudela, lau haizetara sakandarron momentua dela zabaldu nahi dugu". Etxarriarrek "erabakiaren lehenbiziko hazia landatu" zutela eta Gure Esku Dagok bide horretan sakondu nahi duela adierazi zuen: "elkarlanerako zubiak eraiki, berdinen artean erabakia gauzatzeko". Bakaikuarrek egin bezala, "elkartu, adostu eta erabakia gauzatzeko" deia egin du Gure Esku Dagok. Erabakitze eskubideari bide ematera eta herritarrek eskubide horren aitzindaritzaz hartzea zilegi jo du.

Horregatik, Gure Esku Dagotik ezinbesteko jo dute "norbanakoen gogoia eta konpromisoa.



Parte-hartzea islatzeko aurkezpenean dantza egin zuten.

Ahalduntze demokratikoan gutako bakoitza protagonista izan behar delako, ez dezatela erabakiguregatik." Etxarrin, Bakaikun eta atzerrian "guztiz egingarria" dena Sakanan aurrera eraman ahal izateko sakandarrak herritan deituko diren batzarretan parte hartzera gonbidatu ditu Gure Esku Dagok.

## Protokoloa

Gure Esku Dagok orain dela urte bete egindako protokoloan jasotzen denez, 1.000 biztanle baino gehiago dituzten herritan biztanleen %10en babesa jaso behar da galdeketa egin ahal izateko. Mila biztanletik beherako herritan, berriz, %15arena.

## Erabakitze eskubidearen aldeko kriseilu gaua

**Gaur, 21:00etan, Irurtzungo Foru plazan**

Irurtzungo eta Arakilgo Gure Esku Dagok antolatu du gaurko Kriseilu Gaua. Erabakitze eskubidearen aldeko topagune bihurtuko da Irurtzungo plaza. Hantxe auzatea, musika, jokoak, igela, toka eta beste izanen dira. Iluntzearekin batera, kriseiluak piztu eta paperezko puxikak zeruan gora eginen dute, Irurtzundik eta Arakildik mundura erabakitze eskubidearen aldeko aldarri gau ilunean argi aldarrikatuz. Kriseiluak Pikuxarren eta Iratxon erosi daitezke. Gure Esku Dago taldeko kideek baietz 100 lagun! Erronka luzatu dute.

## Olatzagutia

### Udala, bi zinegotziren faltan

**Bi kargu uzteren ondoren, bederatzizinegotzi beharrean zazpi daude: EH Bilduko 5 eta UPPko eta PSNko bana**

Olatzagutiko Udalak bi zinegotzi gutxiago ditu atzotik. "Arrazoi pertsonalak" argudiatuta EH Bilduko Patricia Fernandez Ganuzak kargua utzi zuen. Aurreko legegintzaldian zinegotzi izan zen ere. Koalizioak bere ordezkia proposatuko dio orain hauteskunde batzordeari.

Aurretik, apirilaren 28an, UPNko bi zinegotzietako batek, Oscar Alvarez Peonek kargua utzi zuen. Udal bilkura gelan GALek Angel Gurmindoren, Steinen, argazkia dagoela eta Alvarezk adierazi zuenez, "ezin dut zinegotzi izaten segitu etarra baten argazkia bizkarrean dudanean. Biktimak umiliatzea dela uste dut". Aurreko legegintzaldian PPko zinegotzia izan zen. Erregionalistek oraindik ez dute ordezkorik izendatu. Udala PSNren zinegotziarekin osatzen da.

## Altsasu

### EH Bilduk zortzi inbertsio egitea proposatu du

Altsasuko Udalak 1,9 milioi euroko diru gerakina du, "PPren gobernuak berau gastatzeko jarri dituen baldintzengatik eta azken urteetako kudeaketa onaren emaitza da". Diru horrekin egin behar diren inbertsioak erabakitzeko koalizioak hiru irizpide kontuan hartzea proposatu du: altsasuarren iritzia eta parte hartzea kontuan hartzea; inbertsio horien obrek enplegu sorreran eragina izan dezatela eta epe motzeko inbertsioetan ez erortzeko, planifikazio egoki bat egitea.

Horiek kontuan izanik, inbertsiorako zortzi proposamen egin ditu koalizioak: pergola bateneraikituzarako konpromisoa; energia kontsumoa murrizteko kaleko argiteriaren aldaketaren urte aniztetako plangintza; udal eraikinetako gas eta gasolio galdarak biomasa galdarengatik ordezkatzeta; Otadian frontisa jasotzea; herrian kaleko edukiontzia eta kale seinalizazioa jartzea; kaleko kableak lurperatzeko urte-anizteko plangintza; Dantzalekun eta



Zelandin autokarabanendako guneak egokitzea eta ikastetxetara bizikletan joateko ibilbideak egokitzea.

#### Gonbidapena

EH Bilduk altsasuar guztiak gonbidatu ditu bai gerakina erabiltzeko zein udaleko zerbitzuak hobetzeko proposamenak egitera. Udal taldea astelehenero 17:30ean biltzen dela jakinarazi du. Bestela sare sozialen (twitter eta facebook) EHBilduAltsasu). altsasukoehbildu@gmail.com e-posta bidez harremanetan jartzeko aukera dutela jakinarazi die.

## Uharre / Etxarri



### 15 urteko bi gazte atxilotuta

Espainiako Poliziak 15 urteko uharre bat eta etxarri bat atxilotu zituen herenegun goizean. Andra Mari ikastolara joateko etxetik atera eta autobuserako bideanbata eta bestea bidean zela atxilotu zituzten. Iruñeko polizia etxera eraman eta han deklarazioa hartu ondoren aske utzi zituzten. Martxoaren 17ko ikasleen grebarekin eta Iruñean izandako istiluekin omen dute atxilotetek. Ikasle mugimenduak Lomce Legearen kontrako protesta deituzuen. Herritik eta herriaren mesedetara egonen den hezkuntza sistema eraikitze bidean, eredu alternatiboak gaurdanik praktikan jartzeko asmoa azaldu zuten ikasleek greba harekin.

#### IKASTOLAREN IRITZIA

Goizeko atxiloteten inguruan Andra Mari ikastolako Zuzendaritza Batzordeak "erabat gaitzesten du, ikasle hauek adin txikiak izanik, Polizia Nazionalak atxilotetak gauzatzeko orduan erabilitako modua. Atxilotetak, ez haien familiak, ez bere kargupean zegoen inori jakinarazi gabe gauzatu dira, eta familiek, atxiloteten berri lekuko bitartez izan dute". Ikastetxetik azaldu dutenez, "Andra Mari ikastolak elkar lana, elkarriketa, tolerantzia edo solidaritatea bezalako balio eta jokaera demokratikoak garatzen jarraituko du; bere ikasleriak aukera politiko, kultural, sozial... orotariko independentzia eta burujabetza izan dezan, gaitasun kritiko eta irizpide propioak landuz, desadostasunak erabaketsuan adieraziz eta pluraltasunarekiko begirunean heziz".

Aldi berean, Andra Mari ikastolak Lomce Legearekiko desadostasuna adierazi eta adierazpen askatasuna defendatu du. Hezkuntza komunitatearekin batera, LOMCE legea aplikatu ez dadin lanean jarraitzeko asmo sendoa azaldu gainera.

## SAKANA

### Prekarietatearen aurkako deia

Ibarreko langile, gazte eta emakume talde batek Sakanan lan eta bizitza duina izateko prekarietatearekin bukatzea ezinbesteko jo du. Arlo ezberdinetako sakandar horiek prekarietatearekin bukatzeko, besteak beste, eskatu dituzte: enplegu duina, lan munduan sartzeko aukera berdintasuna, euskaralari hizkuntza izatea, behartuta ibarretik kanpo lanean joan behar ez izatea. Garagarrilaren 3an, 19:00etan, Altsasukoen enplegu bulegotik abiatuta eginen den prekarietatearen kontrako giza katean parte hartzera deitu dute.

## SAKANA

### Internetarako beste konexio aukera baten aurkezpena

**Ostegunean, 10:00etan, Arbizuko industrialdeko Utzugane zentroan. Izena emateko: informacion@artaiz-asesoria.es e-posta edo 645 541 842 whatsapp-a**

Sisnet enpresa nafarrak eskainiko duen hitzaldian Sakanan Internetarako lotura hobetzeko aukera baten berri emanen du. Sisnetek Artxuetan azpiegitura jarria du eta Sakanako edozein udalerritik herritarrek eta enpresak Internetera konektatzeko aukera eskaintzen du dagoeneko. Enpresatik diotenez, "egun-go beharrei erantzuten dion nahikoa abiadura eskaintzen duen aukera da. Nafarroako beste eskualde batzuetan indarrean da eta jendea oso pozik dago bere martxarekin." Aurkezpena doazenez zerbitzuaren ezaugarriak ezagutu eta euren euskarri digitaletan probatzeko aukera izanen dute. Aldi berean, Sakanako Mankomunitateak gaur nahi duen Guifi.net proiektuaren berri emanen da, epe ertainean ibarrean sare ireki, libre eta neutralasortu nahi duena. +www.guaixe.eus

### Hamar udal goi tentsioko linearen kontra

**Deikatzelu eta Itsaso artean Sakanan barna egin nahi den 400 kV-eko linea egitasmoaren kontrako plenekoa akordioa hartu dute**

Arakil, Irañeta, Uharre Arakil, Arrua, Lakuntza, Arbizu, Etxarri Aranatz, Bakaiku, Iturmendi eta Urdiain dira goi tentsioko linea egitasmoaren kontra agertu diren Sakanako hamar udalak. Haiekin batera, akordio bera hartu dute Gipuzkoako eta Nafarroako beste 21 udalek (egitasmoak guztira 33 udal ukitzen ditu). Guztiek ere proiektuaren kontra egin dezatela eskatzen diete Nafarroako Gobernuari, Eusko Jaurlaritzari eta Gipuzkoako Diputazioari. Udalen iritziz egitasmoa ez da onargarria eta paisaia, ekonomia eta ingurumen argudioak eman dituzte. +www.guaixe.eus

### Bizikletan beste gizarte eredu baten alde

Errotz eta Lizarrusti artean txirindulari tropel koloretzua ibilizen larunbata arratsaldean. Txirrinka martxakokideak ziren. Bizikletagaitzako Korrika moduko horren bidez gizarte eredu berri baten alde egin zuten eta "azpiegitura suntsitzaleen" kontra agertu ziren. Hala, pedal kolpeka Abiadura Handiko Trena, errauskailuak, zentral nuklearrak, goi tentsioko argindar lineak, tiro poligonoa eta beste salatu zituzten. Igandean despeditu zen Txirrinka, Begarako AHTko lanetara egindako martxan.



Ekitaldiak

Irakurle aurreratua

Zozketak

Denda

berriarekin zuzenean

berria berri

Orain

**berria** *laguna*

gehiago da

> [berria.eus/berrialaguna](http://berria.eus/berrialaguna)

BERRIAlaguna bazara

*Sortu kontua*

eta gozatu abantailez!

[berria.eus/berrialaguna](http://berria.eus/berrialaguna)

Zure ekarpenari esker,  
aurrera goaz!

**berria**

mundua·euskarari·emana



GRUPO TANATORIO  
**IRACHE**  
TANATORIO TALDEA

948 197 070

Tanatorioak: Altsasu-Irurtzun-Lekunberri-Betelu-Leitza [www.tanatoriosirache.com](http://www.tanatoriosirache.com)

**Juan Ignacio Erdozia Larraza**  
**Fidel Larraza Marin**  
**F. Javier Guruzeaga Etxarri**  
**Felipe Ceberio Maiza**



**Etxarri Aranazko zuen kintuek**

**Juan Miguel Arregi Razkin**

Egun berezi honetan,  
gurekin sentitzen zaitugu




**Lakuntzako zure kintoak**

**Jean Pierre, Patrick, Nathalie**

Arbizun, maiatzaren 19an, hegazkin istripuan hildakoak

Hegaz libre,  
hegaz pakean

Eskertzak eta eskelak osteguneko  
goizeko 11:00ak arte jasotzen ditugu.  
Euskara hutsean argitaratuko dira.



**Bidali mezua zorion@guaixe.eus-era**  
**edo hots egin 948 564 275 telefonora**



**Oroigarriak**  
**egiten**  
**ditugu**

Nahi duzun  
argazki  
eta testuarekin

**gk**  
KOMUNIKAZIOA

948 564 275  
Foru plaza, 23-1  
Altsasu  
[gk@gkomunikazioa.eus](mailto:gk@gkomunikazioa.eus)

# guaixe.iragarkilaburrak.com

1 HIGIEZINAK

4 HARREMANETARIK

7 AISIA/KIROLA

2 TEKNOLOGIA

5 IBILGAILUAK

8 FAMILIA/ETXEA

3 LANA/NEGOZIOAK

6 HARREMANAK

## NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Webgunean: [guaixe.iragarkilaburrak.com](http://guaixe.iragarkilaburrak.com)-en **doan**  
Guaixe astekarian: Saldu/erosi, erretan eman/ hartu,  
lan eskaintzak 11 euro + BEZ / 3 aste

## HARREMANETARAKO

Telefonoa: 948-56 42 75  
Posta elektronikoa: [zorion@guaixe.eus](mailto:zorion@guaixe.eus)

### Lana/ Negozioak

#### LAN ESKAINTZA

**Urdiaingo Udalak aisialdirako begiralea behar du.** EGA ezinbestekoa, magisteritza ikasketak, CV-ak udaletxean jasoko dira edo bidali hona: [urdiainlurdiainudala.e.telefonica.net](mailto:urdiainlurdiainudala.e.telefonica.net)

#### Urdiaingo igerilekuan soroslea behar da.

Lan horietan aritzeko, sorosle titulua, D.E.S.A ziurtagiria behar da. Interesatuak, maiatzak 31 baino lehenago, Aitziber elkarteak emailerara bidali beharko du kurrikuluma, [aitziberelkarteak@gmail.com](mailto:aitziberelkarteak@gmail.com)

### Higiezinak

#### ETXEA SALDU

#### Etxebizitza lursailarekin salgai Etxarri

**Aranatzen.** 4 gela, 2 komun, sukalde-egongela, garajeta eta 130 metro karratuko lursaila. Interesatuak deitu 676 92 71 65 telefonora.

**Pisua salgai Altsasun.** Jantzita. Tel 618 19 07 24.

**Etxe bat saltzen da Lakuntzan.** 76 m<sup>2</sup>, beheko solairua da eskailerarik gabe, eta 187 m<sup>2</sup>ko lursaila borda batekin. Tel 948 46 15 94.

### LOKALAK ERRENTAN EMAN

**Lizarragako Azi Iturri elkartea alokagai.** San Adringo festetan. Enkantea ekainaren 5ean goizeko 12:00etan Azi Iturri elkartean. Gutxienez 600 €. Festak ekainaren 18an, 19an eta 20an.

### Aurten, Urdiaingo igerilekuak hartu nahi

**duten guztiak,** Urdiaingo Aitziber elkartera etorri beharko dira, ekainak 5ean, asteazkena, gaueko 20:00etan. Interesatuak "proiektu" bat aurkeztu beharko dute. Adkudikazietako baldintzak bete beharko dira. Baldintza hauek [aitziberelkarteak@gmail.com](mailto:aitziberelkarteak@gmail.com) posta elektronikoki bidez eskatuko dira.

### Lizarragan taberna-jatetxea alokatzen da.

Zugain taberna zegoen etxea alokatzen da. Interesa duenak deitu zenbaki hauek: 943308318 / 943458649

### Opatutakoak/ galdutakoak

#### OPATUTAKOAK

**Altsasuko Udaltzaingoak Altsasun galdutako gauza hauek ditu:** diru-zorroak, poltsak eta nezeserrak: 31. Audifonoa: 1. Betaurrekoak eta betaurreko-zorroak: 42. Euritakoak eta makilak: 19. Belarritakoak, kateak, eskumuturrekoak, eraztunak, erlojuak eta imitaziozko bitxiak: 31. Arropak eta oinetakoak: 48. Bizikletak eta patinak: 10. Beste objektu batzuk: 8. Etxeko giltzak eta ibilgailuak.

#### GALDUTAKOAK

**Lizarragako tunelean Volvo kotxeko giltzak galdutak.** Opatzen badituzu, mesedez, deitu 678 58 77 42 telefonora

### Lehiaketak

**Arbizuko play-back lehiaketa.** Arbizuko festetan izanen da. Izena eman nahi duenak Arbizuko

liburutegian eman dezake izena.

### Oharrek

**Iratiko ohianera literatur-bisita.** Maiatzaren 29an Ibon Martin idazlearen eskutik "La fábrica de sombras" liburuko kokalekuak ezagutzeko aukera izanen da. Izen-ematea Altsasuko Arkatz liburudendan.

### Helduen Nafarroako Euskal Kantu Jaialdia.

Udazkenean izanen da. Izena eman nahi duenak [nafarroakoeuskalkantu@gmail.com](mailto:nafarroakoeuskalkantu@gmail.com) edo [amado-minguez@tafallaikaastola.org](mailto:amado-minguez@tafallaikaastola.org) e-postara idatzi dezake, helduen jaialdirako dela adieraziz.

### Euskaldun bat euro bat.

Nafarroako erresuma-koa izan zen Baigorriko Etxaizia gaztelua euskaldunentzat berreskuratu nahi da. Nafartarren eta euskaldun guztien etxea izan dadin. Gure kultura, ekonomia, historia eta mugaz gaindiko harremanak antzinarazteko gunea bizia. Informazioa [www.euskaldunbateurobat.com](http://www.euskaldunbateurobat.com)

### Volkswageneko langileendako deia.

Iruñeko lantegiak zure elkartasun proiektua deialdia bigarren urtez aurkeztu du. Bocalan Biak Bat fundazioak "Lau zango milaka irri" programa aurkeztu du laguntza deialdi horretara. Proiektua aurkeztu duten Sakanako elkarte bakarra dira. Fundaziotik Volkswagen-eko langileei 24 proiektuaren aldeko botoa ematera animatu dituzte.

**Nicoleren aldeko diru-bilketa.** Garun paralisia duen neska olaztiarra atzerrian operatzeko diru-bilketan ekarpena egin nahi duenak kontu korron-

te honetan sartu dezake dirua: ES 33 2100 5365 2301 0002 9770.

### GoiEner Iruñean.

Landare utzitako lekuan, Joaquin Beunza, 9 behea, Errotxapean, hilabete-ko lehenengo eta hirugarren asteazkenetan, 17:00etatik 19:00etara etor zaitzake informazioa jasotzera, zalantzak argitzera, ekarpenak egitera...

### Autoenplegurako laguntza.

Zure lanpostua sortu nahi baduzu Cederna-Garalurrek honako laguntza eskaintzen du: ideia azterteza, proiektua garatzea, enpresa sortzea edota martxan dagoen jarduerara sartzea. Argibide gehiago: 948 56 70 10, [sakana@cederna.es](mailto:sakana@cederna.es) edo [sakana.admon@cederna.es](mailto:sakana.admon@cederna.es)

### Mintzakide proiektua.

Egonkortzeko denon laguntza behar dugu, lagundu zabalitzen eta finantzatzeko: <http://goteo.org/project/zu-gabe-ezin>

### Nafarroako Elikagaien Bankuaren alde.

Diru ekarpenak kontu korronte hauetan egin daitezke: Laboral kutxa 3035 0069 52 0690024878, Rural kutxa 3008 0001 16 0700279128 eta Caixabank 2100 2173 87 0200346965.

### Euskonews ekonomikoki laguntzeko kanpaina.

Informazio gehiago: [www.euskonews.com/laguntza](http://www.euskonews.com/laguntza) [euskonews@euskonews.com](mailto:euskonews@euskonews.com), 943- 32 22 94.

**3MBk kontu korrontea zabaldu du.** Rural kutxan eta jendeak han egin ditzake ekarpenak

3008 0093 66 2460985811

### Auzolana Josefina Arregui klinikari.

Auzolanean parte hartu nahi dutenek 948- 56 38 50 (klinikari) edo 689- 03 51 20 (Patxi) telefonotara hots egin dezate.

### Bazkideak Josefina Arregui klinikarako.

Bazkidea izan nahi duenak urtean 12 € edo nahi duen kopurua eman dezake. Informazio gehiago: [amigosjosefinaarreguilagunak.blogspot.com](http://amigosjosefinaarreguilagunak.blogspot.com) edo [amigosjosefinaarreguilagunak@gmail.com](mailto:amigosjosefinaarreguilagunak@gmail.com)

### Eskuratu zure belexeguaixe txartela.

50€ko kuota urtean eta deskontu eta abantaila paregabeak betirako. Deitu 948 564 275 eta izena eman edo bete formularioa gure webgunean [www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus).

### JAIOTZAK

• **Maddi Sanchez Ongai,** maiatzaren 19an Uhartea Arakilen.

### HERIOTZAK

• **Agustina Igoa Berastegi,** maiatzaren 18an Lakuntzan.

Informazio hau epaitegietan eta udaletan jasotzen da. Agertu nahi ez duenak, han jakinarazi dezala.

TXIRRINDULARITZA

**AZKARATE ETA RODRIGUEZ EUSKADIKO TXAPELDUNAK:** Berriatuan jokatuako Euskadiko Txapelketa Rural Kutxako Iker Azkara-

tek irabazi zuen. Bere taldekide Sergio Rodriguez 4.a izan zen. Azkarate 23 urtez azpiko txapelduna da eta Rodriguez elite mailakoa.

## Atletismoa

## Ziordiko herri krosaren txanda

Larunbatean, 17:00etan txikien lasterketak eta 17:30ean proba nagusia (6,9 km)

Ziordia Running taldeak dena prest dauka larunbaterako. Izan ere bihar, III. Ziordiko Herri Krosa jokatu da. Guztia antolatzeko Dantzaleku Sakana klubaren eta hainbat eta hainbat babesleren laguntza du taldeak. Sakanako Atletismo Kopa-Lasa Kirolak Sari-rako balia garria da proba.

## Kontrako norabidean

Kategoria txikietak probak Ziordian jokatu dira, 17:00etan. Ondoren, 17:30ean emango zaio hasiera proba nagusiarri (6,9 km). Ziordiko herri gunea ardatz hartuta prestatutako zirkuituari 3 itzuli eman beharko zaizkio, eta

aurten, berrikuntza moduan, zirkuitu hori kontrako norabidean egingo da. Proba bukatzerakoan auzate ederra egongo da korrikalari guztiendako eta lehendabiziko hiru korrikalarietako saria jasoko dute. Hortaz aparte, makina bat produktu eta loteren zozketa egingo da.

Aurreko urtean kategoria txikietan 77 neska-mutiko aritu ziren eta helduen proban 95. Andoni Agirre zumaiarra (24:24) eta Izaskun Beunza olaztiarra (28:34) izan ziren txapeldunak.

## Izena emateko

Egunean bertan, 15:30etik aurrera, Ziordiko Errekakartea elkarrean. Helduek 3 kilo elikagai eta haurrek 2 kilo elikagai.

## Paris 365 eta Dravet Fundazioaren alde



Ziordiko Herri Krosa proba solidarioa da. Printzipioz izena ematea dohainik da, baina antolakuntzak Paris 365 jantokirako elikagai bilketa egingen du eta izena ematearen truke helduei 3 kilo elikagai eramateko eskaera egin die antolakuntzak, eta haurrei, 2 kiloko. Jantokirik kontserbak eta gosarietarako elikagaiak behar dituztela adierazi diete. Halaber, erabilitako errotuladore eta boligrafoen bilketa egingen dute, Dravet Fundazioari emateko. Fundazio honek Dravet sindromea dutenei laguntza ematen die.

&gt;&gt;

## 129 bikote Etxarrin korrikan



Berdintasunaren aldeko mezuzak zabaldu ziren Andra Mari ikastolaren III. Binakako Lasterketa-Naparpetlet Sarian

Andra Mari ikastolaren III. Binakako Lasterketa-Naparpetlet Sarian proba ez lehiakorra jokatu zen larunbatean. Binaka aritu behar izan ziren bertan parte hartu zutenak. Lau mailatan jokatu zen proba: Haur Hezkuntza (200 m), LHko 1. eta 2. mailak (400 m), LHko 3. eta 4. mailak (800 m) eta LHko 5. mailatik gorakoak (2.250 m).

“Oso ongi joan zen dena. Eguraldiona, giro oso polita... handiek eta txikiak, guztiak pasa genuen ongi. 129 bikotek hartu genuen parte eta ekimenarekin jarraitzeko asmoa dugu” adierazi digu antolatzaille lanetan aritu zen Amaia Gerrikagoitiak. Emakume eta gizonen arteko berdintasuna aldarrikatu zen, eta korrikalari askok kamiseta morearekin parte hartu zuten proban. Bilgune Feministako ordezkariak ere izan ziren.

## Atletismoa

## Alba eta Lopez garaile Aitzkozar krosean



Juantxo Azurmendi, Alberto Anton, Ginesa Lopez eta Mikel Goikoetxea.

Lukas Larrazak eman zion probari hasiera eta omenaldi beroa jaso zuen

Larunbatean jokatu zen XII. Aitzkozar Krosa, Bakaikuko Bakarrekoe txea eta Iturmendiko Aitzkozar elkarteek Dantzaleku Sakana klubaren laguntzarekin antolatutako proba. Aurten Bakaiku izan zuen irteera eta helmuga. Antolatzailleek Lukas Larrazak korrikalari bakaikuar handia omendu nahi izan zuten aurten. Bakarrekoe txea elkartearen bere omenez prestatutako erakusketa zegoen ikusgai eta lasterketa ondoren oroigarriak eta omenaldi polita jaso zituen 87 urteko bakaikuarrak. Hortaz aparte, berak eman zion proba nagusiarri irteera, 18:30ean.

Aitzkozar Kroseko proba nagusia Bakaiku eta Iturmendi artean antolatutako zirkuituari 2 itzuli eman behar zizkieten korrikalarietako, guztira 8,1 km osatuz. 107 korrikalari hartu zuten irteera eta bero galantari egin behar izan zioten aurre. Horrek izugarri zail-

du zuen proba. Azkarrenak Ibai Alba hernaniarra (27:47) eta Ginesa Lopez altsasuarra (35:20) izan ziren. Biek probaren gogortasuna nabarmendu zuten. Aitzkozar krosak Sakanako Atletismo Kopa-Lasa Kirolak Saria mustu zuen. Saillapenean laugarrena sartu zen Sergio Garzia de Eulate altsasuarra (29:40) eta Ginesa Lopez altsasuarra (35:20) izan ziren korrikalari sakandar azkarrenak.

## Aurretik txikiak

Proba nagusia baino lehen kategoria txikiako lasterketak jokatu ziren. 50 korrikalari baino gehiago aritu ziren, aurrebenjamin mailatik hasita kadeteen mailaraino. Txapeldunek dominak eta oroigarriak jaso zituzten.

## Lukas Larrazari omenaldi polita

Lukas Larrazak 1929an jaio zen eta krosean espezialista handia izan zen. Nafarroan federaziorik ez zegoenez, Gipuzkoakoarekin

## Sakandarrak Aitzkozar Krosean

|     |                         |       |
|-----|-------------------------|-------|
| 1.  | Ibai Alba               | 27:47 |
| 4.  | Sergio Garcia de Eulate | 29:40 |
| 6.  | Raul Audikana           | 29:44 |
| 7.  | Iban Gonzalez           | 30:10 |
| 8.  | Felix Benjumea          | 30:31 |
| 10. | Adur Senar              | 30:43 |
| 11. | Patxi Cano              | 30:51 |
| 12. | Aitor Mozo              | 30:59 |
| 13. | Asier Arnaiz            | 31:03 |
| 14. | Gorka Garzia de Eulate  | 31:21 |
| 15. | Antton Zelaia           | 31:25 |
| 16. | Ekaitz Artola           | 31:27 |
| 17. | Jorge Iradi             | 31:37 |
| 18. | Asier Pellejero         | 32:22 |
| 21. | Andoni Azanza           | 32:38 |
| 22. | Eukeni Goikoetxea       | 32:45 |
| 23. | Gaizka Martinez         | 32:59 |
| 26. | Gorka Acebes            | 33:13 |
| 28. | Javier Pain             | 33:37 |
| 33. | Urko Agirre             | 35:06 |
| 34. | Pedro Barriga           | 35:11 |
| 36. | Mikel Goikoetxea        | 35:19 |
| 37. | Ginesa Lopez            | 35:20 |
| 38. | Juantxo Azurmendi       | 35:32 |
| 39. | Asier Estarriaga        | 35:55 |
| 40. | Gaizka Diaz de Garaio   | 36:04 |

Saillapen osoa: [www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus)

\*Oharra: Antolakuntzak ez du korrikalarien jaioterriko daturik eman. Hortaz, sakandarraren bat haztea gerta daiteke.

lehiatu zen. Nazioetako Krosean egungo Munduko Kros Txapelketa-3 aldiz internazionala izan zen, 1955etik 1957ra, Donostian, Belfasten eta Waregemen jokatuak Nazioetako Krosean. Donostiakoan 44.a saillatu zen eta taldekako brontzezko domina jaso zuen (ikus Guaixeko 11 galderak).



Haurren mailako proba.

**LIBURUAK EROSTEKO 30 EUROKO 8 TXEKEREN ZOZKETA**

**IRABAZLEAK:**

- Alfredo Álvaro (Altsasu)
- Eider Murugarren (Arbizu)
- Ariane Sancho (Irurtzun)
- Beñat López de Gauna (Olazti)
- Juan Carlos Mogollón (Irurtzun)
- June Etxeberria (Urdiain)
- Oihan Aldatz (Ziordia)
- Garazi Artieda (Etxarri Aranatz)

\* Txekek liburutegian jaso ahal izanen dituzue.

## Pilota

## ElkarPelota irabaztetik datorren Ongay Irurtzungo finalaren bila

XXIV. Irurtzungo Pilota Txapelketan bigarren finalerdia jokatu dira igandean, 11:15ean. Ea igandean Elkar-Pelota txapelketa irabazi zuen Alberto Ongay Irurtzungo finalean egoitea lortzen duen. ElkarPelotako finalean, satrustegiarrak 22 eta 15 irabaziz Unai Lasori (Uhartea). "Ez nuen irabaztea espero, baina esperientzia izan dut alde" adierazi zuen Ongayk.



## 2. finalerdia

**Igandean, 11:15ean:**  
Seniorrak: Ongay-Tabar / Ojuel-Altuna  
Promesak: Mugiro-Agirre / Chiapuso-Beloki

Lehen finalerdietako emaitzak:

**22 urtez azzian:** Zudaire-Eskudero **22** / Santesteban-Aizpurua **13**  
**Seniorrak:** Ioldi-Gorriti **22** / Arrieta-Arratibel **20**



## Arbizuk eta Lizarrak bina berdindu

Herrien arteko Txapelketako 3. jardunaldian, Arbizuk eta Lizarrak bina berdindu zuten.

Herrien arteko txap.: Arbizu 2 / Lizarra 2

**Kimuak:** Imaz-Lakuntza (Arbizu) **6** / Balerdi-Otxotorena (Lizarra) **18**  
**Haurrak:** Lima-Ganboa (Arbizu) **18** / Berruete-Pierola (Lizarra) **5**  
**Gazteak:** Nazabal-Petriati (Arbizu) **22** / Azkune-Ruiz de Laramendi (Lizarra) **15**  
**Seniorrak:** Arruti-Goikoetxea (Arbizu) **4** / Plaza-Lana (Lizarra) **22**



## XLV. Olaztiko San Migel Txapelketa: 5. jardunaldia aurretik

Zazpi partida jokatu dira guztira asteburuan Olaztin.

## 5. jardunaldia

**Ostiralean, 20:00etan**  
**3.maila:** Zubiria-Sergio / Razkin-Maiza  
**2. maila:** Jokin-Muñoa / Iñaki-Joanes  
**Nagusia:** Ansa-Irurita / Intxausti-Imaz  
**1.maila:** Beunza-Jurgi / Sanz-Arana  
**Larunbatean, 17:00etan**  
**3.maila:** Baztarrika-Gaizka / Mikel-Imanol  
**2.maila:** Garzia-Arana / Etxeberria-Sarazibar  
**1.maila:** Joseba-Unai / Pueio-Urretabizkaia

## Mendi lasterketak

## Aritz Munarriz lehen sakandarra Zegama-Aizkorri

**Kilian Jornetek (3:50:03) eta Yngvild Kaspersenek (4:50:58) irabazitako proban 9 sakandar aritu ziren eta 42.a sailkatu zen Munarriz**

Hotza, euria, lohia eta lainoa. Horixe zen XV. Zegama Aizkorri mendi maratoni famatuaren (42,195 km) parte hartu zuten korrikalariak proba gogorrari aurre egiteko zuten panorama. Mendi aldean zegoen hotz izugarriak are gehiago zaildu zuen proba. Aipatzekoa da parte-hartzaile ugari utzi behar izan zuten lasterketa, tartean probako buruan kilometro ugari egin zituen Aritz Egeaurretuarra. 388 korrikalarik lortu zuten proba bukatzea. Beste behin Kilian Jornet korrikalari kataluniarra izan zen probako jauna eta jabe (3:50:03). Jornetek 9 minutu pasa atera zizkion Laventein Marc korrikalariari (3:59:22), eta bere 8. Zegama-Aizkorri maratonia irabazi zuen. Emakumezkoetan Yngvild Caspersen norvegiarra izan zen azkarrena (4:50:58), Megan Kimmel estatubatuarren aurretik.

Zortzi sakandarrek lortu zuten proba osatzea eta guztietan azka-



## Gorka Sarasibar azkarrena III. Ergako Kronoigoeran

Eguzkia lagun zutela, 39 korrikalarikerantzun zioten Ergako Trinitaterakorrikan igotzeko gonbitari. Mutiloako Gorka Sarasibar izan zenguztien artean azkarrena (24:29), Evaristo Noveleta irurtzundarrari 2 segundo aterata. Bezperan Zegama-Aizkorri Kilometro Bertikalean arizteatik zetorren Mikel Rubio izan zen hirugarrena (25:19). Emakumezkoetan Ainhoa Oñatibia (29:45), Idoia Alvarez (31:16) eta Amaia Etxeberria (32:38) igo ziren podiumera.



## III. Ergako Kronoigoera

|     |                   |       |
|-----|-------------------|-------|
| 1.  | Gorka Sarasibar   | 24:29 |
| 2.  | Evaristo Noveleta | 24:31 |
| 3.  | Mikel Rubio       | 25:19 |
| 4.  | Egoitz Carrion    | 25:51 |
| 5.  | Igor Etxarri      | 25:58 |
| 6.  | Asier Reparaz     | 26:07 |
| 7.  | Iñigo Rekalde     | 26:53 |
| 8.  | Juan Larrea       | 26:54 |
| 9.  | Andoni Goñi       | 27:01 |
| 10. | Ipe               | 27:10 |
| 11. | David Mutiloa     | 27:29 |
| 12. | Iñigo Etxarte     | 27:48 |
| 13. | Fore              | 28:05 |
| 14. | Ruben Moral       | 28:21 |
| 15. | Javier Erbiti     | 28:26 |
| 16. | Gaizka Angulo     | 29:22 |
| 17. | Alvaro Ortega     | 29:42 |
| 18. | Ainhoa Oñatibia   | 29:45 |
| 19. | Sergio Rekalde    | 30:35 |
| 20. | Ion Zabaleta      | 30:52 |

Sailkapen guztia: [www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus)



Aritz Munarriz, aldapa gogorretan eta euripean gora. PROZIS

rrena Aritz Munarriz etxarriarra izan zen, 42. postuan (4:48:43).

## Rubio, Araña eta Goñi Km Bertikalean

Ostiralean II. Zegama-Aizkorri Km Bertikala jokatu zen (3,2 km). Iban Murua (36:43) eta Maite Maioara (45:43) izan ziren irabazleak. Mikel Rubio irurtzundarra 37.a sailkatu zen (48:10), Fran Araña arbizuarra 98.a (55:34) eta Sergio



## Beraza bigarrena Hiru Mendi Trailen

## Sakandarrak Hiru Mendi Trailean. 27 km

## Gizonak

|      |                   |         |
|------|-------------------|---------|
| 1.   | Arkaitz Galindez  | 2:14:56 |
| 2.   | Jose Luis Beraza  | 2:15:34 |
| 8.   | Alvaro Ramos      | 2:23:10 |
| 10.  | Ander Erize       | 2:26:39 |
| 11.  | Alberto Goñi      | 2:27:44 |
| 16.  | Alberto Razkin    | 2:32:20 |
| 17.  | Juanjo Armendariz | 2:32:28 |
| 68.  | Javier Beraza     | 2:52:25 |
| 152. | Felix San Roman   | 3:16:34 |
| 154. | Roberto Jaka      | 3:17:20 |
| 172. | Mikel San Martin  | 3:23:43 |

## Emakumeak

|      |                    |         |
|------|--------------------|---------|
| 155. | Maria Goikoetxea   | 3:17:20 |
| 175. | Erkuden San Martin | 3:24:50 |

\*Oharra: Antolatzaileek ez dute korrikalarien jaioterriko daturik jarri. Hortaz, gerta daiteke sakandarren bat ez agertzea.

## Arkaitz Galindez irabazletik minutu pasara sartu zen uhartearra

Igandean Hiru Mendi Trail mendi lasterketa jokatu zen Atarrabian. Proba luzean 210 korrikalarik lortu zuten proba bukatzea. Faboritoek ez zuten huts egin eta proba luzean Arkaitz Galindez (2:14:56) gailendu zitzaion Uhartea Arakilgo Jose Luis Berazari (2:15:34). Uhartearrak sentsazio onekin bukatu zuen proba. Emakumezkoetan Izaskun Sanzek irabazi zuen (2:50:00).

Makina bat sakandar aritu ziren Hiru Mendi Trailean. Azkarrenak Jose Luis Beraza uhartearra eta Maria Goikoetxea etxarriarra (3:17:20) izan ziren. Goikoetxea emakumezkoen sailkapenean 8.a izan zen.

Goñi olaztiarra 163.a (1:07:23).

## Sakandarrak XV. Zegama-Aizkorri maratonia

|      |                           |         |
|------|---------------------------|---------|
| 1.   | Kilian Jornet             | 3:50:03 |
| 42.  | Aritz Munarriz (Etx.)     | 4:48:43 |
| 56.  | Beñat Katarain (Lak.)     | 4:55:35 |
| 68.  | Juanjo Goikoetxea (Uhar.) | 5:00:44 |
| 73.  | Aritz Ganboa (Arru.)      | 5:03:26 |
| 81.  | Jose Javier Maiza (Etx.)  | 5:05:14 |
| 165. | Fidel Jimenez (Etx.)      | 5:38:15 |
| 253. | Aitor Salinas (Etx.)      | 6:22:47 |
| 263. | Joxan Salgado (Alts.)     | 6:27:14 |
| 300. | Jesus Casillas (Lak.)     | 6:44:33 |



Beraza, helmugara iristen.

## II. Goizutrail

II. Goizutrailen (25 km) Ander Iñarra gailendu zen (2:10:13). Alatz Agirre 14.a sailkatu zen (2:40:33) eta Israel Arbizu 31.a (2:51:50).

## Botxa

## Iratxo Botxa Txapelketan sei partida jokoan

Zazpi talde lehiatzen ari dira Iratxo Botxa Txapelketan. Botxa petanka antzeko joko tradizionala da.

## Asteburuko partidak

## Ostiralean

**19:00etan:** AHTrik Ez / Xabier-Migel-Txutxurrin

**20:15ean:** Desesperados / Lirainak

## Larunbatean

**19:00etan:** Guillermo-Francisco-Iñaki / Lirainak

**20:15ean:** Iñigo-Xabier-Jabier / Guillermo-Francisco-Iñaki

## Igandean

**19:00etan:** AHTrik Ez / Tximeleta

**20:15ean:** Xabier-Migel-Txutxurrin / Guillermo-Francisco-Iñaki

## Mendia

## IX. Arakil '16 mendi martxan izena ematea zabalik

Garagarzaroaren 4an izango da baina maiatzaren 31rako apuntatu behar da

Arakil Kulturak IX. Arakil '16 mendi martxa antolatu du garagarzaroaren 4rako. Goizeko 8:00etan Hiriberriko iturritik aterako dira, Madotz eta Golderatzetik buelta egin eta gero, Etxeberrin despeditzeko. 14:30erako bazkaria antolatu dute Etxeberriko Herri erdi elkarteak. Izena ematea zabalik dago maiatzaren 31ra arte Arakilgo Udalean (948 500 101 edo 634 584 226 telefonoak edo [arakilkultura@gmail.com](mailto:arakilkultura@gmail.com)). Helduek 15 euro eta hurrek 8.

## Arania-Sarabe emakumeekin

Dantzaleku Sakanako mendi sekzioetik emakume talde bat sortu da. Igandero Sakanako mendiak ezagutzeko asmoa dute. Igandean Arania-Sarabe ibilaldia egingo dute, 9:00etan. Foru Plazatik aterata.

## Futbola

## Sakanako Futbol 8 Topaketen bukaera

Sakanako Futbol 8 Topaketen 19. eta azken jardunaldia jokatu da igandean Altsasuko Dantzalekun. Mankantolatuta, helburua futboleantzen diren Sakanako 9 eta 11 urteko neska-mutikoei lehiaketa batean aritzeko aukera ematea da. Ez da sailkapenik egiten, neska-mutikoei lehiaketa baten presiorik gabe aritzeko.

## 19. jardunaldia

**11:00etan:** Kaixo - Mediolanum

**11:00etan:** Dantzaleku - Tipi Tapa

**12:00etan:** Sayas - Etxarri

**12:00etan:** Urdiain - Lagun Artea

**Atsedena:** Sutegi

## Txirrindularitza

# Bizikleta festa igandean Irurtzunen



Neska-mutikoak adi adi, bizikleta konpontzeko aurreko urteko tailerreen.

**Mankomunitateak antolatuta, bizikleta ibilbidea, herri jolasak, bizikleta konpontzeko tailerra eta material trukea izanen dira 9:30etik aurrera Irurtzongo Foru Plazan**

Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak, Immigrazio Zerbitzuak eta Euskara Zerbitzuak aurreko urtean bizikleta festa antolatu zuten Altsasun eta arrakasta ikusita, ekimenarekin aurrera jarraitzea erabaki dute. Baina aurten festa Irurtzunen ospatuko da, igandean, Foruen plazan. Ekimena behar bezala prestatzeko ondoko talde eta entitateen laguntza izan du Mank-ek: Irurtzongo Udala, Barranka Txirrindularitza Taldea, Berri Bikes denda, Muruzabal bizikletak eta Sakanako ikastetxeak eta guraso elkarteak.

Antolakuntzatik adierazi dutenez, goizeko bizikleta ibilbiderako kaskoa, mendiko bizikleta eta ogitartekoa eraman beharko dira. Jakina, aurretik bizikleta pun-

tuari jartzea eskatzen dute. Kirol materialaren trukea egiteko materiala aurretik jaso dute Atakondoa eta San Migel ikastetxeetan.

## Bizikleta festako egitaraua

### IGANDEA

**9:30ean:** 2 orduko bizikleta ibilbide erraza Irurtzundik barna, ez lehiakorra.

**11:30ean:** Auzatea.

**12:00etan:** Herri jolasak: zapiak, koxkolak, soka saltoa, munduko jolasak... eta bizikleta konpontzeko tailerra.

**12:30ean:** Kirol materialaren trukea: patinak, erraketak, bizikletak, patineteak, palak, baloiak, esku pilotak, eskiak...

**Bukaeran** partaide guztien artean oparia zozketatuko da.

## Irristaketa

# Villalobos urrezkoa eta Chamorro brontzezkoa

Asteburuan Espainiako Irristaketa Zirkuituko Abiadura Txapelketak jokatu ziren A Coruñaiko Sadan. Barañaingo Lagunak taldean dabilen Unai Villalobosek 5.000 m puntuazioko lasterketa irabazi zuen eta bere taldekide Ander Chamorrok 1.000 metroko lasterketan brontzezko domina kolporatu zuen. Sakana Irristaketa Taldekoak ere ongi ibili ziren.



## Kiroldegia

# Kirola euskaraz Irurtzunen



Aizpea euskalzaleen elkarteak Irurtzongo Plaza gimnasioa bilakatu

eta spinning, zumba eta eskalada saioak antolatu zituen, euskaraz.

## Aizkora

# Merezitako omenaldia Nazabali

**Igandean, 12:00etan, Etxarri Aranazko Euskalerriri pilotalekuan. 40 aizkolari baino gehiago bilduko dira Etxarriko aizkolaria omentzeko**

Floren Nazabalek aizkora uztea erabaki zuen 2015eko lastailaren 4an, Nafarroako I. Mailako Aizkora Txapelketaren finala jokatu eta gero. Disko-hernia dela eta, oinaze askorekin ibili izan da Nazabal eta, arazoak ez zirela konpontzen jabetuta, azkenean, plaza utzi egin behar izan zuen Etxarriko txapel-dun handiak. Euskal Herriko maila nagusian 6 aldiz eta Nafarroako lehen mailan 9 aldiz txapel-duna izan den aizkolari handiak merezitako omenaldia behar zuela argi zuten bere inguruan dabil-tzan aizkolariek eta Sakanako Aizkora Eskolakoez iganderako antolatu dituzte ospakizunak.

Omenaldian berarekin ibilitako aizkolariek, harri jasotzaileek eta trontzalariek erakustaldia egi-



Nazabal seme-alabekin, bere ibilbideari buruzko erreportajea egin genuenean.

nen dute. Goizeder Beltzak esan digunez, 40 aizkolari inguru bilduko dira, Florenekin lana egin duten guztiak, Euskal Herri oso-koak. Etxarri Aranazko Udalak ere parte hartuko du ekitaldian. Jakina denez, oroigarriak jasoko ditu Nazabalek eta aureskua ez da faltako. "Omenaldi xumea antolatu dugu, handikeriarik gabekoa, bera

ere halakoa delako, umila" gaineratu digu Beltzak.

### Herri bazkaria

Ondoren herri bazkaria antolatu dute frontoian. Txartelak salgai daude Etxarri Aranazko Xapatero, Derry eta Iturri Eder tabernatan (20 euro). Informazio gehiago: 606 239 008.

## Areto futbola

# Magna Gurpeak Bartzelona aurkari finalerdietan

**El Pozo Murcia final laurdenetan bidean utzita, finalerdietan Bartzelona ren kontra gaur joaneko partida jokatu dute berdeek**

Orain arte jokatuak Play-Offetan El Pozo Murciak beti irabazi izan dio Magna Gurpea Xotari. Baina aurten, aldiz, talde berdeak lortu dugailentzea. Horrela, Magna Gurpea Xotak hirugarren aldiz jokatu dute Play-Offetako finalerdia. Bartzelona izango du arerio.

Play-Offetako final laurdenetan Iruñean jokatuak joaneko partida irabazi zuten berdeek. Joaneko partidari 7 eta 3 gailendu zen El Pozo, eta, hortaz, igandean jokatuak hirugarren partidak erabaki zuen.

Partida ikusgarria izan zen. Bikain arituz Imanol Arregiren



Lehia oso estua izan zuten Magnak eta El Pozok, baina berdeak gailendu ziren.

taldea, ongi defendatuz eta El Pozo estutuz. Partida bukatzeko 20 segundoren faltan, Dani Saldise irurtzundarrak garaipenaren gola sartu zuen (3 eta 4). Araça eta Rafa Usin (2) izan ziren beste golegileak.

"Finalerdietara sailkatzea egin dugun lanaren sari bikaina da"

azaldu du Imanol Arregi entrenatzaileak.

Play-Offetako finalerdietako joaneko partida jokatu du Magna Gurpea Bartzelonaren kontra, bihar, larunbatean, 18:00etan. Ea berriro berdeak sorpresa emateko gai diren.

## Kiroldegia



# Sutegi egunean bikain

**Gimnasia, irristaketa, pilota eta futbol erakustaldiak egin zituzten**

Larunbatean Sutegi klubak bere eguna ospatu zuen Olaztin. Hasteko, zumba erakusketa egin zuten eta ondoren, Sutegiko taldeak hasi ziren lanean. Gimnasia erakustaldia egin zuten gimnasia taldeko 4 olaztiarrek. Sutegi Irristaketa tal-

dekoen erakustaldia etorri zen ondoren. 73 neska-mutikok osatzen dute Sutegi Irristaketa Taldea. Bestalde, Sutegi taldeak 24 pilotari ditu. Larunbatean erakustaldi moduan 2 partida eskaini zituzten, 6 urteko mutilek buruz-burukoa eta 9-10 urtekoek binakakoa. Eta azkenik, Sutegi futboleko taldean

43 neska-mutil dabilta bertan. 6 talde osatu zituzten larunbatean, eta 8 minutuko 3 partida jokatu zituzten. Momentu hunkigarria bizi zen futboleko haurrek gaixorik dagoen Mitxel Agirre olaztiarra omentu zutenean.

Bukatzeke, Osasunako jokalariguztiekin sinatutako kamiseta eta Aitor Zubieta pilotariak sinatutako kamiseta zozketatu ziren eta auzate ederra izan zen.

# kultura >>

**HELDUEN EUSKAL KANTU JAIALDIA, BUELTAN:**  
Bost urte eta gero udazkenerako antolatuko da jaialdia. nafarroakoeuskalkantu@gmail.com edo amadominguez@tafallaikastola.org e-postetan izena eman.



## Lakuntzak bere kultur errealitatea ezagutu nahi du

Lakuntzako Udaleko Kultura Batzordeak herriak kultura larloan duenegoera aztertu eta aurrera begirako plangintza osatu nahi du. Horretarako, prozesu zabal jarri du martxan. Eta, horretan, lakuntzarren iritzia jasotzea ezinbesteko jo du. Kultura Batzordeak azterketa egiteko inkesta bat betetzeragondatu dituzten lakuntzarrak, Internetez erantzun daitekeena.

Inkestak zenbait atal ditu eta guztira 37 galdera. Aurreneko lauak erantzuna ematen duen per-

sonaren inguruko datu orokorrrak dira. Aisialdiari buruzko atala sei galderaz osatua dago eta lakuntzarrei galdetzen zaie, besteak beste: astegunetan edo asteburuetan denbora librerik duten eta egunaren zein garaitan; denbora libre herrian edo kanpoan ematen duten edota herrian dandenean denbora libre hori zein tokitan ematen duten.

Inkestak lakuntzarrek egiten dituzten eta egin nahi lituzketen jarduerak ezagutzeko lau galdera

gehiago ditu. Bestetik, udalak dituen kultur ekipamenduen ezagutzaren eta haien balorazioari buruzko bina galdera daude inkestan. Gaur egun dagoen kultura eskaintzari buruzko argibideak ere eskatzen zaizkie lakuntzarrei. Udalaren kultura politikaren inguruan eta elkarteek sustatzen dituztenez ere galdetzen da. Azkenik, Kultura Batzordeak lakuntzarrak sumatzen dituzten beharrak adieraztera eta proposamenak egitera animatu ditu.



## Pintura azkarreko lehiaketa Olatzagutian

Garagarrilaren 12an, igandean, izanen da bederatzigarren edizioa

Olatzagutiako Udaleko Kultura Sailak herria bera mihi-sean jasotzen duten margolarien pintura azkarreko lehiaketa antolatu du. Edozein teknika erabiliz, lehiaketan parte hartzen dutenek Olatzagutia, inguruak edo jendea har dezakete gaitzat. Euren koadroan herriguneari bertan gartu beharko dituzte. Parte-hartzaileek margotzen hasi aurretik euren mihiseari zigilua jartzera kultur

etxera eraman beharko dute, 8:00etatik 9:00etara. Haurrek, 9:00etatik 10:00etara. Lanak egun bereko 17:00ak eta 18:00ak bitartean aurkeztu beharko dira kultur etxean. Lehiaketako epaia 18:30ean jakinena da.

### Izen ematea

Udaletxeko bulegoan edo 948 562 446 telefonoan, astegunetan, 10:00etatik 14:00etara, edo kultura@olazti.com e-postan IX. pintura lehiaketa aipatuz. Heldu eta gazte mailetan izena emateko epea garagarrilaren 12an, 9:00etan bukatuko da. Haurren mailan,

berriz, garagarrilaren 9an, 14:00etan. Informazio guztia [www.olazti.com](http://www.olazti.com) web orrian.

| Mailak                                | Sariak  |
|---------------------------------------|---|
| <b>Haurrak, 11 urte bitarte</b>       | 1. arte plastikoetarako materiala<br>2. arte plastikoetarako materiala<br>3. arte plastikoetarako materiala |
| <b>Gazteak, 12 eta 15 urte artean</b> | 150 €-ko balea  |
| <b>Gaztea, herrikoa</b>               | 150 €-ko balea  |
| <b>Helduak, 16 urtetik gora</b>       | 500 euro  |
| <b>Akzesita</b>                       | 250 euro  |
| <b>Herrikoa</b>                       | 200 euro  |

## Hiru dantza talde Etxarrin

Larunbatean, 11:30etik aurrera



Etxarri Aranazko Dantzari Txiki Egunak Noaingo, Lazkaoko eta Sakanako dantza taldeak hartuko ditu. Etorkizuna dantza taldea anfitrioi lanak egiten ditu eta dantzari segizioa herrian barnako kalejiran gidatuko du. Bi geldialdi egiten dituzte eta haietan dantza taldeek euren trebezia erakutsiko dute. Kalejira koloretsua plazan despidituko da eta bakarka eta elkarrekin ariko dira orduan dantza taldeak. Eguraldiak lagunduko ez balu azken saio hori frontoian egiten litzateke.

## Falstaff Olatzagutian

Gaur, 22:30ean, Olatzagutiko kultur etxean



Tarima Beltza antzerki taldea fartsa batekin itzuli zen eszenara: *Falstaff no cree en la otra vida*. Heriotza eta hura naturaltasunez hartzeaz ari den obra da Olatzagutian jokatu dutena. Ihotestu inguruan kokatua. Horregatik, pertsonaia guztiei berezko izaera emateko aktoreak aurpegi erdia estaltzen dieten maskarekin lan egiten dute, bestelako adierazkortasuna lortuz.

Francisco Javier Gil Diez-Conddek idatzitako obra da, 1989an Eusko Jaurlaritzaren Francisco de Avellaneda saria jaso zuena. William Shakespearek Enrike IV. obran agertzen da Falstaff; erregearen sasiko seme Hal printzearen bufoi potoloa, lagun borrokazalea, festazalea, andreazalea. Tarima Beltzak emakumezko bihurtu du, Mari Muxarra. "Gaitz pila ditu, baina ez da hiltzen". Herriko aberatsen alabaren laguna da. Hark amarekin ez du erlazio onik. Lagun mina, mutila, apaiza, horren zerbitzaria...

## Teatreves-ekin pozik



Villafrancako Caricaturas antzerki taldearen *La Casa de Bernarda Alba* antzezlanarekin despiditu da VI. Altsasuko amateur antzerki zikloa. Hiru larunbatetan beste horrenbeste antzezlanekin gozatzeko aukera eman du Tarima Beltzak antolatutako zikloak. Bertako kide Juan Manuel Herrero esan digunez, aurreko urteetako kalitateari eutsi zaio bai antzeppenetan bai antolakuntzan. Publikoaren erantzuna pixka bat jaitsi dela ere aitortu du. Nabarmendu du bigarren emanaldia aktore baten gaixotasunagatik aldatu behar izan zutela. Azken emanaldiaren kalitatea aipatzearekin batera horretan publiko gehien bildu zela gaineratu du.

Ohi bezala, antzezlari bakoitzaren ondoren Tarima Beltzak zozketa egin zuen. Oihane Mazkiaran altsasuarrak jaso zuen saria: Altsasuko Dendarien Elkartearen establezimenduren batean gastatzeko 30 euroko txartela eta Alde Zaharreko Xurrut tabernen elkarteak emandako bi ardo botila. Gertu burdin-dendako Rebekak eman zion saria. Sari emaileei, udalari eta ikusleei Teatreves zikloa posible egiteagatik Tarima Beltzak eskerrak eman dizkie.

## Mariñelarenaren obra Olatzin eta Arbizon



Pello Mariñelarena Imazetxarriaren lanekin Sarek antolatutako *Guk ibilitako aktureak* dira erakusketa bi gelteki berri izanen ditu. Gaur, 18:00etatik 21:00etara eta, bihar, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 21:00etara, Olatzagutiako kultur etxean. Etzi, igandea, berriz, Arbizuko Olatzean izanen da 11:00etatik 14:00etara eta 16:30etik 18:30era. Eguraldiak lagunduko ez balu udal etxean. Erakusketak espetxean preso eta gaixo dauden hamar euskal preso askatzea aldarrikatzen du. Egoera berean zela hil zen, inolako mediku artatzerik gabe, etxarriarra.

2016ko OPORREN BEREZIA

«Haiendako onena nahi dut»

Ekainaren 30era arte egin erretserba eta lortu...

Kontsultatu eskaintzarik onenak

www.viajeseroski.es  
www.escaparatviajes.es

Karibe

**8%** deskontua

Cadena Bahia Principe

Parkeen berezia

Port Aventura Park  
Parque Warner  
Futuroscope

**99** €tik

EROSKI viajes

amesten duzu? hegan egin!

## Lagun koadrila kantari

Larunbatean, 22:00etan, Etxarri Aranzako plazan



**E**txarri Aranzako Euskal Festa ixteko musika jaialdia izanen da plazan. Saioa Jo ta txo disko-jartzaileak zabalduko du, 22:00etan. Bera arduratuko da plaza animatzeaz ere, 3:00etatik aurrera. Baina bitarte horretan bi talde pasako dira oholtzatik. Aurrena Tximeleta plaza taldea. Baina ez da bakarrik ariko, lagunekin baizik. Tximeletako kide Mikel Mundiñanok azaldu duenez, "kontzertu berezia da. Herriko eta Sakanako abeslari lagunak osatua, normalean oholztan aritzen direnak edo eta noizean behin aritu izan direnak". Helburuaz galdetuta, "herritarren parte hartzea eta kontzertu gustagarri eta desberdina" eskaintzea izanen dela azaldu digu.

Beraz, plaza taldearekin batera honakoak izanen dira kantari: Aitor Kanpion arbazuarra, Olatz Andueza, Anabel Arraiza eta Ibaixto Hernaiz lakuntzarrak, Juanpa Agirre, Amets Larraza, Lur Larraza, Irati Lasa, Pox eta Xabier Mintegi etxarriarrak, Iñigo Muñoa, Ainhoa Ramirez de Alda eta Imanol Reparaz altsasuarrak eta Itxasne Mundiñano olaztiarra. Haien ondoren, 1:00etan, Arrasateko Arkada Social street-punk taldea ariko da.

## Break-ak eta bestelakoak

Domekan, 17:00etan Olatzagutiko kultur etxean

**D**ancing now ikuskizunak hip-hop doinura egindako dantzak ekarriko ditu. Erritmo eta mugimendu bizia dira ikuskizuneko protagonistak. Dantza saio osoarekin gozatzeko, ikuskitzaren aurretik, ludotekako dantza tailerretan aritu diren neska mutilek euren saioa egingen dute.

# Irurtzungo abesbatzaren urteurren kontzertua



**Larunbatean, 18:00etan, Irurtzungo Biaizpe frontoian Irurtzungo abesbatzak herri musikaz eta musika kultuz osatutako kontzertua eskainiko du, hainbat laguntzaileekin batera**

**I**rurtzungo abesbatzak 10 urte bete dituela eta urteurren kontzertu berezia eskainiko du. Abesbatza osatzen duten 40 kideekin batera emanaldian Orritz dantza taldeak, Irurtzungo musika eskolako gitarra eta txistu taldea, Berriobeitiko Ametza abesbatza, Galar Zendeako abesbatza, Marta Huarte sopranoa, Victor Castillejo tenorea eta Anto-

nio Guerrero piano eta organo-jotzailea.

Abesbatza 2006an lanean hasi bazen ere, bere aurreneko kontzertua 2007ko garagarzaroaren 30ean eman zuten, elizan. Bi asmorekin sortu zen abesbatza, irurtzundarren artean abesbatza-musika sustatzea eta herriko eta ingurukoetako kantu zaletuak abesteko gozamenarako elkar-tzea. 18 kide hasi ziren. Lehen emanaldirako 35 ziren eta gaur egun 45 dira. Fermin Idareta Golarazena da hasieratik zuzendaria eta bere esanetara 150 obrako erreperitorio anitza ondu dute.

Abesbatzak bere musika eskaintza Nafarroan barna egindako kontzertuetan, trukeetan, Nafarroako egunean, lehiaketetan, elkarlanetan eta abarretan entzuteko aukera izan da.

### Egitaraua

|                                     |                      |
|-------------------------------------|----------------------|
| Xalbadorren heriotzean              | Xabier Lete          |
| Salve Rociera                       | Herrikoia            |
| Aurresku                            | Herrikoia            |
| Axuri Beltza                        | Herrikoia            |
| My way                              | Frank Sinatra        |
| Hallelujah                          | Leonard Cohen        |
| Bésame mucho                        | Consuelito Velazquez |
| Va pensiero (Nabucco)               | Giuseppe Verdi       |
| Libiamo ne' lieti calici (Traviata) | G.Verdi              |
| Aleluia (Mesias)                    | G.F: Haendel         |

## 360°ko Nafarroako ikuspegiak erakusketa aretoan

**Garagarriaren 14ra arte, astegunetan 18:30etik 21:00etara eta domeketan 19:00etatik 21:00etara Altsasuko Iortia kultur gunean**

**J**avier San Felipe Larreak atzo zabaldu zuen Nafarroa 360 erakusketa, herrialdea argazki ikusgarrien bidez ezagutzeko aukera ematen duena. Nafarroako paisaien eta ondarearen (elizak, monasterioak) argazki panoramikoak daude ikusgai. Gainera, gauez ateratako argazki panoramikoren bat eta Iruñeko Gaztelu Plazakoren bat ere ikus daitezke.

Horiekin batera, argazkilari altsasuarrak bere bidaietan egindako argazkiak ere ikusteko aukera izanen da; Irangoak, Indonesiakoak, Birmaniakoak eta Turkiakoak.

San Felipek azaldu digunez, orain dela 10-12 urte hasi zen argazkilaritzarekin. 2009 aldera bidaia batean argazkilariekin bat egin eta euskarriak eskaintzen zituen

[www.navarra360.com](http://www.navarra360.com)

360 graduko argazkiekin Nafarroako txokoak ezagutarazten ditu.



aukerak interes handiagoa piztu zioten. 2010-2011 aldera argazki panoramikoak ikusi eta haiekiko interesa sortu zitzaion. Ikertze-ari ekin zion eta horren ondotik heldu da erakusketa.

Argazki panoramikoak egiteko kameranormala erabiltzen du. "Tripode gainean buru panoramikoak jarri eta horrela argazki guztiak ikuspuntu beretik ateratzen dira". Erakusketan ikusgai dauden argazkiak teknika eta softwarearen ondorio dira: "argazkiak batu eta programa batekin landu egiten ditut."

# MANIFESTAZIOA

EKAINAK 4 - 17:30 >>>>>

>>>>> IRUÑEA · (GOLEMETATIK)

Bidaia emanon euskarari

euskaraz bizi nahi duguz

**KONTSEILUA**

## Non erabili

**ALFA INMOBILIARIA**  
**ALTSASU**  
Etxe edo pisu baten erosketagatik 100 €ko txekoa opari.

**KIXKUR ESTETIKA ZENTROA**  
**ZIORDI**  
30 €ko gastuarekin %20eko deskontua produktuetan.

**IORTIA HORTZ KLINIKA**  
**ALTSASU**  
%10 aho garbiketetan eta hortz ateratzeetan. Azterketa doan.

**JULENE KORTSETEGI ETA LENTZERIA**  
**ALTSASU**  
%5eko deskontua 50 €tik gorako erosketetan.

**JON CORDON TAXIA**  
**IRURTZUN**  
%10eko deskontua.

**JAVIER AIZPUN HARATEGIA**  
**UHARTE ARAKIL**  
50 €ko erosketetan, etxeko produktua doan.

**UHARTE GAZTA**  
**UHARTE ARAKIL**  
40 €ko gastuarekin, etxeko produktua doan.

**BERGARA CENTRO OPTICO**  
**AGURAIN**  
Graduatutako eta eguzkitako betaurrekoetan % 10eko deskontua.

**JUGA TAILERRAK**  
**ARBIZU**  
%10eko deskontua mantenu piezetan, %5eko deskontua gurpiletan.

**ENERITZ ILEAPAINDEGIA**  
**ETXARRI ARANATZ**  
%10eko deskontua Schwarzkopf produktuetan.

[www.guaixe.eus-en](http://www.guaixe.eus-en) zerrenda osoa ikusgai

**BAZKIDETZA 50€**  
**948 564 275**

## G

asteko >> : eguraldia

|                 | ostirala        | larunbata       | igandea        | astelehena     | asteartea      | asteazkena      | osteguna   |
|-----------------|-----------------|-----------------|----------------|----------------|----------------|-----------------|------------|
| euria: 15%      | euria: 50%      | euria: 80%      | euria: 30%     | euria: 10%     | euria: 10%     | euria: 10%      | euria: 15% |
| Min: 10 Max: 23 | Min: 11 Max: 20 | Min: 10 Max: 16 | Min: 9 Max: 16 | Min: 9 Max: 18 | Min: 9 Max: 19 | Min: 10 Max: 18 |            |

## : temperatura>>

|            | Max. °C | Min. °C | euria l/m <sup>2</sup> |
|------------|---------|---------|------------------------|
| Irurtzun   | 29      | 6       | 4.3                    |
| Etxarri A. | 27      | 4.2     | 11                     |
| Altsasu    | 27      | 4       | 7.5                    |
| Aralar     | 19.2    | 1.5     | 14.4                   |
| Urbasa     | 23      | 3.5     | 7                      |

## : ilargiaren aldia>>

|  | ilbehera | ilberri | ilgora | ilbete |
|--|----------|---------|--------|--------|
|  |          |         |        |        |
|  | 29       | 5       | 12     | 20     |

EGOKI

VENTANAS PVC LEIHOAK

www.ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com

Acrylcolor

SISTEMA BERRIA

KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE

## Bazkide zozketa

MAIATZEKO SARIAK:

1. SARIA:

Ekainberri: 2 sarrera.  
Artazako Kanpina: %10eko deskontua.  
Aquarium: sarrera bat.  
Lacturale: esneki lotea.  
Gaztezulo: 3 hilabetez doan.

2.,3. ETA 4. SARIA:

Artazako Kanpina: %10eko deskontua.  
Aquarium: sarrera bat.  
Lacturale: esneki lotea.  
Gaztezulo: 3 hilabetez doan.

# >> 11 galdera

## Lukas Larraza

Korrikalari ohia

Testua: Maider Betelu eta Alfredo Alvaro



Lukas Larraza, erakusketan. Elkarrizketa osoa: [www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus).

**1. Bakaikoarra, goialdekoa (1929). Horregatik, akaso, korrikalaria?**  
(Kar kar) Igual! Beti jo dut mendi aldera. Hemen egiten nituen entrenamenduak. Santa Marinara, Iturmendiraino, beheko basotik Etxarriko estaziara eta buelta. Distantzia luzeak, askotan 20 km. Basoan asko ibiltzen nintzen, abantaila nuen aldatetan eta lokatzetan.

**2. Noiz hasi zinen korrikan?**  
Bakaikuko Santiagotan karrera egoten zen, Iturmendiraino joan eta buelta. Irabazleak 5 duro zituen sari. Anaia Guillermok esan zidan: "ez eskapo egin eh?". Utzi egin nintzen, anaiak irabaztean. Holaxe hasi nintzen. 1950. ean Bar Koxkoko Angelek Altsasuko festeko karrera batean apuntatu ninduen. Candi Arnanz eta beste korrikan ibiltzen ziren. Patxi Irizar eskapatu zitzaidan karrera hartan.

**3. Korrikalari taldea sortu zenuten?**  
Club Deportivo Alsasua taldea, baina Altsasuko idazkariak esan zigun Gipuzkoara joateko, bertan federatzea, Nafarroan ez baitzegoen federaziorik. Gipuzkoara joan ginen Candi Arnanz eta biok.

**4. Lasterketa askotan aritzen zinen?**  
Bai. Gipuzkoan Candidorekin ibili nintzen korrikan. Bestalde, militarrek eta Frente de Juventudesek karrerak antolatzen zituzten. Hori-takobatean, Altsasun, batek galde-tu zidan ea zer jaten nuen. "Alobi gorriak eta urdaia" erantzun nion. Harrituta geratu zen. Esan ziguten Villagarcia de Arousan lasterketa bat zegoela eta hara joan ginen. De la Quadra Salcedo ere joan zen. Club

Deportivo Tolosakoa zen, baina askotan ibiltzen ginen entrenatzen. Lasterketa hura irabazi nuen.

**5. Hasieratik zu aurrean...**  
Badue napar ostiyoi! esaten zidaten Gipuzkoan. Askok maite ninduten, asko korritu dut bertan. Entrenadoreak esaten zigun zenbat entrenatu eta ze karreretan aritu. Egunero 6-8 km entrenatzeko esaten zigun, baina nik, gogoak banituen, gehiago entrenatzen nuen. Elgoibarren lautan irabazi nuen Mugerza Memoriala, Uliako Gimnastika hirutan eta 1957an Gipuzkoako txapeliduna izan nintzen. 17 lasterketa segituan irabazi nituen, baita Trofeo Muñoz... Eta Nafarroako txapeliduna lautan izan nintzen, 3 krosetan eta bat 5.000 metrotan.

**6. Soldaduska berezia zurea...**  
Ordurako Espainiako taldean klasifikatuta nengoen Nazioarteko Krosetan lehiatzeko, Suitzan. Waregemen, 15 km-ko lasterketan aritu nintzen, ongi, Zátopak handiarekin. Hura zen bitxia, hura! Buel-tan, Espainiako Txapelketan, Campeonato Militarrean aritzeko deitu zidaten. Soldadu nintzen, militar bezalakorritzen nuen. Nik korrika pasatu nuen soldadutza. Militar jantzirik ere ez nuen. Hori bai, soldadu nintzela lortutako kopa guztiak han gelditu ziren!

**7. Zein ziren garaioko korrikalariak?**  
Sergio Bueno, Amoros, Castro Rubial, Hurtado, Garcia, Bidegi, Irizar, Jose Castro Rubial... Gero, Zátopak, Fred eta Clay Norris...

**8. Hirutan aritu zinen Nazioarteko Krosetan, ezta?**  
Hiru aldiz internazionala izan

nintzen, 1955tik 1957ra, Donostian, Belfasten eta Waregemen jokaturako Nazioarteko Krosetan. Belfasten konturatu nintzen oinetakoei tira batzuk jartzen zizkiotela, takoak. Eta Altsasuko zapatariari esan nion ezpartinei halako tira edo tako horiek jartzeko. Ahalgenuen bezala ibiltzen ginen. Beste garai batzuk ziren. Karreretara joateko Bakaikutik Altsasura oinez joaten nintzen, Altsasun trenea hartu eta Donostira. Eta bueltatzen nintzen, sarritan Olaztik frontoira oinez joaten nintzen. Serapio anaiarekin bikotea baiginen pilotaka.

**10. Zenbat urtez korrikalari?**  
10 urte inguru. Orduan 58 kilo neuzkan. Legazpin lan egiten nuen, ezkondu nintzen... Azkenean, lasterketak utzi nituen, 1957an. Orduan mendira joaten hasi nintzen. Korrika ibili nintzen urtetan ez nuen inoiz lesiorik izan, ezta erorketarik ere. Korrika egitea gustatzen zitzaidan, niretako salbazioa zen.

**10. Egungo probak ezberdinak dira?**  
Bai. Behobia-Donostia erreleboka jokaten zen, gipuzkoarrak iparraldekoen kontra. Gipuzkoakoan Bidegi, Agirre, Irizar eta ni aritzen ginen eta beti irabaztegenien. Iparraldekoek. Guk entrenatzen genituen kilometroak gaur egun maratoiak prestatzeko entrenatzen dira. Neurririk gabe entrenatzen ginen, kilometro pila, baina gustura.

**11. Bakaikun omen du zaituzte.**  
Orain dela 5 urte Bakaikuko festetan ere omenaldia egin zidaten. Gaurko erakusketarekin eta omenaldiarekin ere oso pozik nago.

KOMUNIKAZIOA

Kamisetak

Programa liburuak

App-ak 150€-tik

Kartelak

Pegatinak

Herriko festetarako behar duzun guztia

Foru plaza, 23-1. Altsasu | 948 564 275 | 948 562 107

gk@gkomunikazioa.eus | www.gkomunikazioa.eus